

# ISILIK

PEDAGOGI ALDIZKARIA

1987ko Uztaila

8. alea



**OSABIDEZKO HEZIKETA**



# **BILINTX LIBURUDENDA**

**EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.**

Fermin Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

**Fermin Calbeton 30ean,** euskal liburu eta diska guztiak  
aurkituko dituzue.

**Esterlines 10ean,** Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,  
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

**e|kar** s.a.

Esterlines, 10  
Telef. 426319  
DONOSTIA-3

---

**EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A**

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.  
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

W 5888  
UR-089/8 ISILIK

# ISILIK

PEDAGOGI ALDIZKARIA

1987ko Urtoila

8. alea



OSABIDEZKO HEZIKETA

Argitaratzaile:  
G.I.L.E.

Egileak:  
Irakasle, guraso,  
sikologo, pedagogo  
eta beste

Azala:  
Irakasle Elkartea

Diseinugile:  
Irakasle Elkartea

Inprimaketa:  
Gráficas Lizarra


Konposaketa:  
Lente

Dep. Leg.:  
S.S. 509/82

GIPUZKOAKO  
IKASTOLETAKO  
IRAKASLE  
ELKARTEAren  
ardurapean.

Oharrak:  
Idazlanak bidali nahi  
dituenak jo beza  
helbide honetara:  
Plz. Amesketa, 12-8° F  
Donostia 20010  
Tfnoa: 455100-22


IRAKASLE ELKARTEA  
EZ DA HEMEN  
AZALDUTAKO  
ERITZIEN ARDURADUN  
EGITEN.



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
ESKOLAURREAN HEZI EUSKALDUNDUZ.....	5
IHINTZA ALDIZKARIA.....	9
OSABIDEZKO HEZIKETA.....	11
GOI-ZIKLOKO ERREFORMA.....	15
HIZKUNTZEN EGOERA NATURALA.....	19
Isoglosak, dialektoak.....	
ordezkapena, plangintza.....	
GIZAKIA ETA ERROTAK.....	29
HAUR IJITUAK ESKOLATZEAZ, ZENBAIT GOGOETA.....	39
ZER DA PEDAGOGIA?.....	41
HAUR LITERATURAREN TXOKOA.....	44
ERITZIAK.....	46
MEMORI GUTUNA.....	47

Salneurria: 300,- pzta.



# SARRERA

.....Ez dugu  
abotsa gehiegi jaso,  
baina nahi duenak entzun lezake,  
Entzuteko, entzun arazteko,  
entzunak izan daitezten,  
entzunak izan zaitezten.....

Isil.....Isilik.....,

Inor gutxi ohartuko zen agian, baina berandu samar bada ere, eskuartean daukazu 8. alea.

Ez dakigu norengana iritsiko den, baina zu irakurle zaren horri alde zuzena adierazi nahi dizugu, oraingo honetan ez dugula teoriarik sartu nahi izan, esperientziak askoz ere aberasgarriago jotzen ditugulako.

Zure gustoko izango ote?

Jakina denon gustoko izate horrek, zure partaidetza eskatzen du; zuk aurrez idaztea, alegia. Behar bada guk hautatu dugun bidea ez da oso egokia izango, baina berriro ere zure eritzia jakin nahi dugu, zernolakoa nahi zenukeen; zer gai edo arlo landu nahi zenukeen, etabar..., etabar.....

Jadanik jakingo duzu zergatik garen hain "pelmak" ezta? Orain arteko kolaboratzaileak LUPAZ aurkitu beharrean izan garelako.

Jakin ere badakigu zuk asko dakizula, esperientzia berriak egiten dituzula eta hori dena zertarako isilean gordetzen baduzu?

Kanpora itzazu, zabal itzazu beste lankideen artean eta ikusiko duzu zernolako satisfakzio nabariturik du zuna!

Badakizu non gauden. Zergatik ez dizkiguzu gai berriak proposatzen?

Hemengo bi lagunok ikusten ez dugun asko egon behar du hortik zehar.

Bestalde, esan beharrik ez dago, irakaskuntza zeinen konfliktiboa den eta, zergatik ezkutatu kezkatzen gaituzten arazoak?

**ISILIK**ek bitarteko bat besterik ez du izan nahi; hori lortuz gero, beterik luke bere helburua.

Bestalde, ez dugu uste egia osoa genioenik arestian esan dugunean teoriarik ez dugula sartu ale honetan, zeren, bai ote esperientziarik irakaskuntzan, hezketa osoan, teorizazioan oinarritzen ez denik?

Beno, dena den, ez dizkizugu aipatuko artikulu guztiak banan-banan; har ezazu aldizkaria, eser zaitez lasai eta patxadan eta azter ezazu zure lankideek eginiko lana. Ondoren, idatz ezaguzu zure eritzia lan horretaz.

Badakizu non gauden, bahitzen ez gaituzten bitartean...

**ISILIK**eko isilkariak.

## Eskolaurrean hezi euskaldunduz

Bai, eskolaurrean euskaldundu daiteke, are gehiago, oraindik, unerik egokiena dela esango nuke.

— Eskola kokaturik dagoen herriko euskalduntzearen arduraz jabetu behar badu ere, eta beharrezko bitartekoa den arren, ez da aski horretarako.

— Halaz ere, eginkizun hau behar den bezala egin ahal izateko *oinarrizko baldintza* batzu proposatuko nituzke:

1) Desdramatizatu egin behar da asuntoa zeren, gehiegizko inportantzia hartzen ari bait da, eta eskolak bere-bereak dituen beste konpetentzi-arloetan atentzioa eta mailak jeistera zuzen lezake honen.

Egoera dramatiko honetan, nahigabez eta antsietatez beteriko heziketa eskainiko dugu; eta irakatsi nahi dugun hizkuntzari inolako mesederik egingo ez diona, gainera.

Helburu harrotz eta nahasiko ikasketen gainetik, lorpenen esperientziak hartu behar du nagusitasuna edo lehentasuna haurraren gan.

Desdramatizatzeak ez du esan nahi inolaz ere, arazoa baztertu edota, inportantzia kendu behar zaionik, alderantziz baizik, aztertu ondoren egoeraren diagnosis egin eta honi dagozkion neurri egokiak hartu beharko dira soluziobideak eskaini ahal izateko.

2) Euskararen erabilpenaren benetako situazioen sorketa. Haurrak eskola-girotik kanpo jasotzen dituen euskarazko imput-ekiko ekintza desberdinak adieraziko dituzten egoeren sorketa.

3) Eskatzen eta eskaintzen diren erabilpenen formen egokitasuna eta sistematizazioa; bai maiztasunari dagokionez; eta baita konplexutasunari dagokionez ere.

4) Kurrikulum-eko arlo guztietan euskararen erabilpena, ikasketeta tresna bezala hartuz.

Ez dezagun ahantz, eskolaurreko ekintza bakoitzak arlo desberdinetako helburuak lortzeko balio izan behar duela.

Bi hizkuntzen alternantzia edota, gainjartzea, zentru-antolaketa eta eredu hezitzaileen arabera egingo da.

5) Gurasoen motibatze eta inplikazioa berauen seme-alaben euskalduntze eta prozesu edukatiboan. Aise egin daitezkeen kolaborazio errazetatik abiatuz.

6) Inguruak, gizarteak eskaintzen dituen posibilitateen aprobetxagarritasun edo baliagarritasuna, eta hizkuntza horren beharra eta erabilpena frogatu beharko dute.

*Lanaren ezaugarriak*

Haurren nortasunaren garapenean helduarekiko loturek eta interakzioek duten eraginaz gainera, eta mintzairaren jaberazpenean irakasleak bete dezakeen funtzioa kontutan harturik:

1) Nahita nahiezko baldintza, izango da haurrarekin harremanetan sartzea, eta irakaslea haurarentzat "norbait" izan dadila. Eta irakasleak haurren beharrak asetzen dituen neurrian, orduan besterik ez da izango inportantea haurarentzat. Hezitzaileak igarri egin behar ditu eta horrek sortzen dituen satisfakzioak jarrera positiboak sortaraziko dizkio, ez bere buruarekiko bakarrik, honekin batera daraman guztiarekiko, baizik.

Talde handietako egoeretan eta indibidualetan ere sortzen zaizkio beharrak haurrari. Horregatik, erlazio-maila hauetaz ohartuko da irakaslea, eta behar horiek asetuko. Ingurugiroan oinarriturik eta euskaraz eginez, tonu eta keinuaz baliatuz.

2) Euskara erabiliz, esperimintatuz, jolastuz eta hitzeginez, jabetuko da haurra euskaraz. Proposaturiko erabilerak gero barneratu ahal izango diren eduki errazez beterikoak eta berehala egiazta daitezkeenak izango dira. Hau da, ekintza guztia hizketaz lagundurik joango da eta hizketa oro, aldiz, ekintza batez.

Lehenengo hizkuntzan gertatzen den bezala, bidezkoa dena ahozkatuko dute. Noizbait iritxiko da euskarak hizkuntzaren funtzio guztiak beteko dituen eguna!

3) Euskararekiko helburu nagusia, lexikoa, morfosintasia, semantika edota, fonetika irakastea ez denez (hauek gero datozen abstrakzioak bait dira), haurrak egiten dituen ohizko ekintzak bigarren hizkuntzaz laguntzen posibilitatzea baizik, beronen irakaskuntzaren planteiamendua funtzional-nozionala izango da, eskolaurreko kurrikulum-ean zehazturiko beste ikaskaien arteko adostasunaren arabera, alegia.

4) Baina hizkuntzaren nabaritasuna ez da aski ikasteko, eta are gutxiago, gure kasuan, hizkuntzaren nabaritasun hori ia eskola-eremura mugatzen denean.

Zenbat eta input txikiago (denboran eta espazioan) orduan eta sistematizazio handiagoa, eskolaurrean eskainiko zaiena baino.

Input-aren urritasuna, hizkuntzaren jaberazpena erraztuko duten euskarri, testuinguru eta erabilpen ereduez hornitzen ahaleginduko gara.

Hemendik ateratzen den ondorioa zera da: *Bitarteko egokien beharra*, alegia; eta nire kasuan, ipuina eta eguneroko ekintzen errealizazioa izan dira, erabili izan ditudanak, zeren, lehenengo hizkuntzan ematen ez zirenak bistakoak zirelako edo, euskaraz hitzez eman ohi dira. Ipuinok hizkuntz-helburuen arabera izan dira; konprentzio orokorra, zehatza edota, hitz-sortarazleak, alegia.

**OHARRAK**

"Lorpenaren esperientziaz" jabetzearen garrantzia aipatu da arestian eta horretxegatik, emaitzaren aurretik beti konprentzioa edo ulermena dagoela eta beraien mailak desberdinak izanagatik aldi berean ematen direla ohartuz, batetik; eta bestalde, helduon ikuspuntutik begiraturik, biak hasieran oso orokorrak eta abstraktoak gertatzen zaizkiola eskolaurreko haurrari, kontutan harturik, desegokitasunak jaberazpen-prozesuaren berezko desegokitasuntzat hartu dira; era berean, desegokitasun horiek betirako gera ez zitezen neurri egokiak eskaini zitzaizkien.

— Guztiok jakinaren gainean gaude jaberazpenetan autokon-  
tzeptuak eta espektatibek jokatzen duten paperez, beraz;

• Igo dezagun berauen maila gure eginkizun profesionalean.  
Hori bai, horretarako behar diren bitartekoz baliatuz.

• Fida gaitzen haurraren kapazitateaz konfidantza emanaz;  
haurra horretaz ohartuko da eta bere buruaz irakaslearengan susma-  
tzen dituen espektatiben araberrako aurrerakuntza egingo du.

Eta pentsa dezagun:

• Gehiengoak ikasten ez badu, garrantzitsu den zerbaitek hu-  
tsegiten digula.

• Gutxi batzu badira ikasten ez dutenak, azter ditzagun zerga-  
tiak eta bila ditzagun bitarteko eta euskarri berriak haur hauentzat.

— Ez dezagun hestutu eta larritu haurra, ez diezaizkiogula bar-  
nera arazi gure porrotak bereak balitu bezala. Hezi dezagun, hori  
baita gure helburua, baina beti ere Herri-kulturan eta hizkuntzan,  
zeren, hiru ikastaroetan zehar eta une eta erritmo desberdinetan ja-  
soko bait dira beharrezko jaberazpenak, euskara, komunikabide eta  
ikasketa tresnan bilaka dadin.

— Eta non eskolaurrean baino hobe, hizkuntza berriaren jabe-  
razpenarako behar diren harreman pertsonalak eta sozializazio on  
batetarako behar diren benetazko egoera horiek lortzeko?

— Adibide gisa aipa ditzagun argazkiak: "Aita naiz. Loreak, le-  
horrak zeudelako ureztatzen ari naiz, ura behar zuten. Ura ekarri  
dut ureztagailuan, konketatik hartu dut. Gehiegi isuri dut eta lurra  
busti egin da. Lehortu egin behar dut, irrista daitezke. Zolu-garbi-  
gailua hartuko dut eta lehortu egingo dut".

Adibide hau ez ote da, erabilpenak euskaraz aberastez gainera,  
helburu hezigarri ugari lor dezakegun bizipena?

"Bai, egin daiteke eta hori lortzen ahalegindu behar dugu". Ez  
dezagun ahantz haurraren garapen osoa ez dela lortuko izaki akultu-  
raltzat dugun bitartean.

Luixi Astiazaran





# ISILIK

Plaza Amezketza, 12 - 8.a F  
DONOSTIA

## HARPIDETZA

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria ..... Tlf. ....

Adina ..... Lanbidea .....

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia .....

Sukurtsala (Ordezkaritza) .....

Eguna .....

(Sinadura)

# IHINTZA

UDARREGI 87  
IKASTOLA

“Usurbilgo Udarregi ikastolan jaio den aldizkaria”. Horrela dio guk kontserbatzen dugun bildumako lehen aleko aurreneko orrialdean. Ale hau 82-4-11ko dataz atera zen. Ale honetan “Ikastola” izena hartuta dago Udarregi, nahiz eta garai hartan ikastola promoziozko taldeak erdiak bakarrik izan. Ale hori arakaturaz, erdia erdaraz idatzita dagoela ikusten da; zortzigarren mailakoek egina bait zen, eta maila hau promozio horretakoa zen. Ale hau, hurrengo guztiak bezalaxe, ikasleek idatzia da.

Duela hamar bat urte Udarregik atera zuen beste ale bat, ikasle eta irkasleek parte harturik. Hura gehienbat erdaraz argitaratu zela uste dut. Bazterren batean bada, baina egun hauetan ezin dugu eskuratu. Izena ere ez dut uste IHINTZA zuenik eta Udarregi ere ez zen Ikastola.

IHINTZAK orain arte izan dituen fruituak eta datak hauek dira: IHINTZA 1 (82-4-11), IHINTZA 2 (82-12-21), IHINTZA 3 (83), IHINTZA 4 (83), IHINTZA 5 (84, Martxoa), IHINTZA 6 (85), IHINTZA 7 (86) eta IHINTZA 8 oraintxe dago “inprentan”. Bi ikasturtean (82-83 eta 83-84) bina ale argitaratu genituen 2, 3, 4, eta 5 aleak. Hasierako beroaldiak ziren.

Ikusten denez, ideia orain dela bost urte hasi zen gauzatzen. OHO-ko zortzigarren kurtso-ko neska-mutilentzat ekintza interesgarria izango zela eta, beraiei azaldu genien. Baita berek gogo ederrez jaso ere proiektua. Atalak eta gaiak aukeratu eta beren artean banatu zituzten, taldeka aritzeko.

Lanak bukatu, bildu, konposaketa aztertu, azala egin azalak zuri-beltzean ateratzen ditugu, noski; baina baldintza hori bera ere aprobe txagarria izaten da, bakoitzari berea margotzeko esaten zaio eta oso pozik egiten dute, gainera, eta aldizkaria osatu genuen. Irakasleoi lanik handiena multikopistaz ateratzeak eman zigun eta, gero, enkuadernatzeak. Azkeneko lan hau ikasleen laguntzaz egin genuen eta gaur ere halaxe egiten dugu.

1982-83 ikasturtean ikastolako talde guztiak parte har zezatela erabaki genuen, hau da, kurtso bakoitzak idazlanen batzuk prestatu eta eskolaurrekoek beren marrazkiak, ale bakoitzean bakarren batzu tartekatzeak. Orain arte larehun eta berrogeitamar bat ale izan ohi ditu ateraldi bakoitzak. Beraz, aldizkaria ikasleek egina izan ohi da, azal eta guzti; irakasleok piska bat zuzentzen eta taxuketan sartzen garelarik.

### Gaien hautaketa

Gaiak nola aukeratzen diren? Aurreneko alea gehienbat Usurbilgo gaietara mugatuta geratu zen (azoka, lantegiak, Udarregi bertsolaria, Ingemar, langabezia Usurbilen, Usurbilgo kirolak, musika, bi inkesta eta denborapasak). Gerokoetan gaiak asko ugaltu dira (ipuinak, komikiak, olerkiak, bertsoak, abestiak, inbestigazio lan batzu, sukaldarako errezeta batzu,...) Zenbait kurtsoan denborapasak eta elkarrizketak egiteko joera handia izan ohi da. Eta orain

kurtso bakoitzari bi gai hauetarako muga batzuk jartzen dizkiogu. Bestela, gai hauekin bakarrik beste ale bikoitz bat atera daiteke noiz-nahi. Beste gainontzean gai hautaketa nahiko librea izaten da, goi mailetakoei inbestigazio lanetara bultzeaz.

Hizkuntzari dagokionez, lehenengo alean erdia eta 2nean ia erdia erdaraz egin ziren; baina IHINTZA 3 ia dena euskaraz dago eta IHINTZA 7an, 114 orrialdeetatik 18 besterik ez daude erdaraz. Iaz B ereduko lau gela genituelako.

Aurten aldaketa bat izango du IHINTZAK. Hasiera eta Erdi-Ziklokoek ez dute parterik hartuko. Izan ere hauek ipuinak txisteak eta horrelako lanak egin ohi dituzte eta azkar bukatu gainera. Beraz, aldizkaria argitaratzen deneko, interesaren beroa ere ia erabat galdua izaten bait dute. Eta gainera, goiziklokoentzat beheko ziklokoen lanek erakarmen txikia dute, eta alderantziz. Honegatik, beheko bi zikloek beren erara funtzionatzea erabaki dute, aurtengoz behintzat. IHINTZA handi horrek eskaparate ona zuen, baina ez zen Udarregi osoarentzat hain praktikoa. IHINTZA 8a Goi-Ziklokoen lanez eta Eskolaurrekoen marrazkiz hornitua izango da.

Aldizkari hau dela eta, Udarregik baditu harremanak beste zenbait ikastolarekin, adib.; Ataun, Bilbo, Hernani, Donostia, Zumaia, Lasarte, Galdakao, Ikaztegieta, Iruñea, Beasain, Lakuntza, Lizartza etab.- rekin eta baita Euskal Herritik kanpoko beste zenbait herritako eskolekin ere, hala nola, Barcelona, Sabadell, Córdoba, Valenciakoekin ere.

Zenbait egunkari eta aldizkaritan ere IHINTZA aintzakotzat hartu dute: EGINek, "Cuadernos de Pedagogia-k", ISILIK-ek, bere berri eman izan dute.

Eta bukatzeko, duela bi urte Udarregiko irakasleok gurasoentzat, eta gurasoei parte hartu nahi bazuten proposatuz, beste aldizkari bat zabaldu genuen: AHOTS izenekoa. Ikastola honen funtzionamenduari zegozkion gai zehatzak lantzen ziren; idazten eta irakurtzen irakasteko metodologia, garbitasuna, haurrei euskaraz eginerazi eta gurasoek erdaraz hitzegin, autobusa, bertsolaritza ikastolan, gimnasia ez egiteko aitzakiak, haurrekin eginiko masaia ikastaroko esperientzia etab. Baina arrakasta handirik ez zuenez, utzi egin genuen.





## Osabidezko heziketa

Egoera orokorrari begira kontutan izan beharko genituzke eskolan sortzen diren desajusteak: denon ezaguna da ikasleak OHO-5 kurtsoa iritsita ikaskai desberdinen aurrean topatzen direla eta honek suposatzen duen ahalegina. Gaizki datozenak -hizkuntza eskasa, psikomotrizitate arazoak edota etxeko giro afektibo ezegokiak- oztopo handiagoak izango dituzte kurtsoak eskatzen duen erritmoa jarraitzeko eta oraindik ez dakigu ikaslearen arabera erantzun desberdinak ematen gela bakoitzean. Fase honetan beraz, adierazten dira aurreko urteetan eratu diren arazoak. Adibide gisa aipatuko dut Herri Eskoletan 85-86 kurtsoan izan diren erresultado globalak. Badakit datu hutsak, honela aurkezturik, ezer gutxi adierazten dutela. Aztertu beharko genuke kualitatiboki zein den benetazko maila gaitasunen arabera, eta batez ere eskolen arteko eritzien desberdintasuna. Hala ere aipatu, Hasiera Zikloa %87ak gainditu duela; Erdi Zikloa %75ak, OHO-6 kurtsoa %59ak; OHO-7 kurtsoa %54ak eta OHO-8 kurtsoa %64,5ak. Eskola Pribatuak eta Ikastolak zenbaki hauekiko 10 eta 15 puntu gutxigorabehera, gehitzen dituzte. Ez naiz hasiko hemen eta orain emaitza hauen azterketa eta balorapena egiten. Hortxe daude eta limitazio guztiak kontutan izanik, adierazgarriak dira berez.

Ertainetan arazoa areagotzen zaigu. Ikasleen desmotibazioa gero eta zabalagoa da, etorkizunaren itzalak pisu handia du gazteengan eta orokorrean, beldurrik gabe esan dezakegu azken urte hauetako promozioetan kultur funtzionalarekin lotura gehienek ez dutela lortzen. Ikasleek ez dute "estudiatu" nahi -estudiatzea autodisziplina baikorra bezala planteiatu- eta hortxe mantentzen dira, mantentzen direnak, guraso eta irakasleen presioarengatik gizartean maila bat betetzen ikastearen atsegina sumatu gabe.

Ertainetako deseskolarizazio tasak oso handiak ditugu. Orokorrean, 1983 urteko datuekin komunitate honetan 65.000 gazte 14-18 urte bitartean kalean genituen; honez gero tendentzia igo egin da. Gaur egun, berriz, 80.000 kopurua aurrera dezakegu eta kontutan harturik adin horrekin ezin dela lan mundura igarotzeko titulaziorik izan -Lanbide Heziketaren lehendabiziko Zikloak ezer gutxi balio du eta- jabetuko zarete gaztediaren zati garrantzitsu baten egoera.

Hurbilpen moduan, adieraz 83 urtean Donostialdean (Erreteritik Anmdoainaino) 4.500 gazte zeudela kalean 13, 14, 15, 16 edota 17 urtekin.

Egia da beste garai batetan, duela 15-20 urte alegia, tasak antzekoak izango zirela, baina eskolaren ondoren lanean hasteko bidea irekita zegoen. Norberak bila zezakeen ogibidea era desberdinetan eta ofizio batetan urteak eta ikasketak eginda, nortasuna sendotu. Gaur egun barriz honelakorik ez da gertatzen eta eskolatik kanpo gelditzen den ikaslea bere ezintasunaz ito egiten da. Hauxe dugu, nere ustez gure gizartearen arazo sakonenetako bat etorkizuneruntz duen jarraipenarengatik eta honexengatik zaigu, hain zuzen, Osabidezko Heziketaren eginkizunik hurbilena.

Neska eta mutil hauek badituzte premia eta hutsune batzu. Gehiegi zehazteko asmorik gabe, ondoko hauek aipatuko ditut:

### HUTSUNEAK

#### a) Oinarrizko Heziketa

Ahozko eta idatzizko espresioan irakurritakoa ulertzeko arazoa dute eta honek edozein testu ulertzeko, laburtzeko, sintetizatze edo bertako ideia nagusia ateratzeko ezgaitu egiten ditu edo zailtasunak jartzen dizkie. Eta guzti honek hiztegi-txirotasunarekin batera, bai ahoz bai idatziz, zuzenki espresatzeko eragozpenak sortzen dizkie.

Ingurunea ezagutzeari dagokionez, geografiaz, historiaz, mundu fisikoaz eta bere legez, etab... ezaguera minimorik ere ez dute, eta ez dira gai Natur Zientziak egunerokotasunarekin, maila txiki batean bederen, erlazionatzeko ere.

#### b) Izaeran

Beren buruaz imajina ezkorra dute; edozein egoera aldatzeko beraien posibilitatez konfidantzarik eza, helburu eta itxaropen-maila apala eta berehalako satisfakzio-maila gainditzeko zailtasun izugarria.

Kasu askotan, eskola-eremuarekiko jarrera eta portaera

desegokiak dituzte. Era berean, ikasteko ohitura falta eta hezkuntz bitarteko arruntekin motibaziorako zailtasunak, kontzentrazio-zailtasunak, agresibitate handia, etab, ere bai.

#### d) *Hutsune afektiboak*

Maiz aurkitzen dira mota honetako gabeziak gazte hauengan. Gehienetan famili-giro txarren fruitu dira gainera: zigorra erabiltzeko, estimazio positiboa edo afektua erakusteko baino zaleago bait dira. Egoera hau, eskola-porrot etengabearekin, identifikatzeko eredu heldurik ezarekin, etabarrekin areagotu egiten da.

#### e) *Hutsune okupazionalak*

Ez dakite beren denbora libre (eskolarik ez dutenez, oso luzea da) era positiboan betetzen eta egoera hau larriagotu egiten da lana aurkitzeko zailtasuna medio. "Kalean egotea" bait da beraien lan nagusia.

## PREMIAK

#### a) *Oinarrizko Heziketa baten premia*

Dituzten ezagumendu-mailak oso apalak dira, eta horrela, estimulo eta motibazio ezarekin batera, ikastea ezinezkoa gertatzen zaie eta ondorioz, marjinazioa areagotu eta bizi diren mundura sartzea zaildu egiten zaie. Horregatik, beharrezkoa da heziketa-hutsune hauek betetzea, gazte hauek beren errealitate eta gizartearenari hobeto ulertu eta aurre egin diezaioten.

Horregatik, egingo den edozein hezkuntz-ekintzak heziketa-maila hauetan oinarritu beharko du, zenbait kasutan ezagupen oinarrizkoen berrikastearekin hasiz.

#### b) *Gizarte-giro egokiaren premia*

Zenbaitetan, gutxi egituratuak dauden eta koherentziarik gabeko giroatik datozen gazte hauei, beraien garapen eta hazkunde pertsonalerako lagungarri eta oinarrizkoak diren jarrera, balore eta arauak eskaini behar zaizkie. Guztiz beharrezkoa da honekin, pertsona bezala onartuak eta balortuak sentituko diren giroan murgiltzea.

#### d) *Beren buruak identifikatzeko eredu helduen premia*

14 eta 15 urterekin, helduekin aldatzea inplikatzeko du; aldekoak eta aurkakoak izango dira helduak baina beti beraien erreferentzia aurrean edukiko dute. Honetan datza gazte hauekin aurrera eramango den edozein hezkuntz ekintzan, agintedun agente eta identifikazio-eredu gisa irakaslearen edo suspertzailearen irudiak duen garrantzia.

#### e) *Premia Okupazionala*

Gazte hauek ez dute joko goimailako ikasketak egitera, eskulanetara baizik. Horregatik hezkuntz iharduera lan-mundua ezagutzera zuzendu behar da, oinarrizko ohitura eta ezaguera profesionalak emanez.

Gaur egun Hezkuntza Sailan Erreformekin batera arlo honetatik 3 programa daude martxan.

Lehendabizikoa 14-16 urtetako gazte deseskolarizatuta jasotzeko Ikastegi bereziak. Hutsune eta premiei erantzuna eman nahian antolatu da Gasteizen Pedro Anitua izeneko Eskola 120 ikasleekin. Beste bat Donostian sortzen ari da eta Bilbo aldean epe motzean beste bi -bat Elizak bultzaturik-jarriko dira martxan.

Ikastegi hauen helburuak bi mailetan daude. Alde batetik gazte hauei Eskola eredu desberdina eskaini (examinik ez dago, bakoitzaren ebaluazio orokorragoa antolatu eta erre-fuerzo positiboa bereziki landu; taldeari garrantzi handia eman tutorearen bitartez; teknologi gutxiko tailerretan finkatu ekintza guztien orokortasuna irakasle gutxi batzuren inguruan; gorputz heziketa eta psikomotrizitateari arreta berezia eman, etab.) urte pare bat egoteko. Gero batzuk ikasketara erreglatuetara pasako dira eta besteak Formazio Okupazionalera -Lanbide hastapena, hain zuzen- bideratuko dira.



HEZIKETA

Beste aldetik Ikastegi hauetan saiatu nahi dugu laborategi moduan Pedagogi berezi bat -ikasle arazodunei egokitzen zaiena, alegia- egituratzen, bigarren fase batetan ikastetxe arruntetara igorri ahal izateko.

Beraz saio hauek erreziklaje edo esperimentazio guneak bihurtu beharko lirakeke, ondorioak esparru zabalean nabari zitezten.

Bigarrena aurreko honen ildotik datorkigu. Ikasleak behin eskola honetatik pasa eta gero edo batez ere kaletik 16-17-18 urtekin zuzenki datozenak, lanbiderako Ikasketa praktikoen beharrean daude eta honen arabera gauzatu dugu Lanbide Hastapenerako Programa.

Honetan ofizio konkretuak dira ardatzak, herrialde bakoitzean irtenbide gehien duenak, "aprendiz" edo hasierako prestakuntza izanda gero. Lehendabiziko urtean, astean zehar ordutegian 20 bat ordu praktikari dagokio, beste 5 arlo Sozio Laboralari eta beste 5-10 ekintza osagarri (kirolak, irtenaldiak, hitzaldiak edo Udaletxeko Kultura Sailak dituen errekurtsoen arabera). Txanda honen ondoren ikasleari -horretan ari gara oraintxe- Enpresetan subentzionatutako praktikak eskeintzen zaizkio Eskolarekin koordinaturik gehi bere ofizio horretan sakontzeko ikastaroak.

Ziklo osoa bukatu ondoren langile espezializatua izango dugu autoenplegurako grina txiki bat sorturik eta berriro langabeziaren aurrean topatuko da, baina orain egoera oso diferente batetan; berak badaki zer edo zer egiten, ofizio batetan mugitzen da eta batez ere tresna horrekin helduen munduan sarbidea izan daitekela.


Hirugarrena eskolarekiko prestatu dago, ez bait da oraingoz martxan ipini: 14-16 urtetako ikasle arazodunentzako ikasgela bereziak azterturik daude, O.H.O.aren bukaeran nahiz Ertaintan hasieran "Urte Zubia" izateko asmotan. Hauen eskema Osabidezko Ikastegiaren adaptazioa da eta Hezkuntzaren egituraren lekua izateko zailtasun handiak ari dira sortzen.

Hala ere bideak hortik doaz, bai O.H.O.n saiatzen den erreforma baita ere Ertaintan ari dena, baina hauen eraginak ikusi arte kalean geratzen zaigun ikasle kopurua kezka-garria da.

Nere ustez -bukatzeko- Programa orokorrak aztertzerakoan premiazko behar hauekin batera ikusi egin behar dira arazo sakonak: gurasoen egoera, ikaslearen bilakaera, irakaslearen profesionaltasuna, ikasgaien egokitasuna eta sarearen gaurkotasuna. Makinaria berez oso astuna da eta ez da batere erraza helburu zintzoei eustea gizartean zeharka nahasita dauden hamaika aldagai desberdinengatik. Hala ere era zabalean zenbait esparrutan ari dira pausoak ematen -helduen heziketa Iraunkorra, Tutoritzaren garapena, ikaslearen erritmo desberdinen arabeko programazio moldagarriak, Preteknologia, Espresio eta Plastika Tailerrak, eskolatik kanpoko ekintzak, etab. -eta poliki aterako dira emaitzak. Bitartean arazo oso latza dela jabetzearekin, dexente aurreratuko genuke.

*Anjel JIMENEZ*

*OSABIDE HEZKUNTZA ZERBITZUA*



OSABIDEZKO HEZIKETA



Hori hala bazan,...

Udaleku, hurren pesta, ikastaro, herriko jai, gau beila, kalean edo gela batean,...  
denetan.

sar dadila kalabazan,

Euskal Herri guzian, haur eta berdin, helduentzat,  
Ordu batez, nahiz egun osoan,  
asmakizun, musika, kantu, olerki eta jokoak lagun,  
*Koldo Ameztoi, ipuin kondalaria,*  
dei ezazu (tel. 07/33 59 29 67 91),  
zure herrira ekarraz ezazu!

eta atera, zure herriko enparantz!...



## GOI ZIKLOKO ERREFORMA

Artikulu honetan ALMEN (Eskoriatza) Ikastolako irakasle talde batek adierazten digu OHO-ko Goi Zikloko Erreforma izan duten esperientzia, zergatia eta beronen balorazioa, bi urte bait daramate jadanik Erreforma honetan.

Erreforma sartu baino lehen, aurreko ikasturtean, Goi Zikloan eta, beste zenbait punturen artean, garbi genekusan:

- Ikasketa lanetarako motibazio gabeko ikasle kopuru handia.
- Eskasekoen kopurua ere 40tik gorakoa zen urtez urte.
- Programetako eduki edo gaien zerrenda luzeegia, sakontzen hasiz gero iritsi ezinezkoa.
- Irakasle-ikasle arteko harremanen haustura eta hoztasuna 7. mailatik aurrera batez ere.
- Erdiko Ziklokoarekiko Goi Zikloko antolamenduak suposatzen zuen saltoa (irakasle espezializatuak, ordu banaketa,...)

Bagenuen, beraz, egoera honi eta berorrek planteiatzen zuen problematikari irtenbidea aurkitzeko gogoia.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Goi Zikloko Erreforma bideratzeko erabili zituen ideia nagusiak ezaguturik, berau izan zitekeela soluziobidea pentsatu eta experi-

mentalki aurrera eramatea erabaki genuen.

Esan beharra dago gure ikastolan 1.400 ikaslek (OHO-ko 1.º mailatik U.B.I. arterainokoak) elkarbizitzen dutenez, plangintza honetan sartzea luzaro eztabaidatu zela, onarpenak ikasleak taldeko lanetan denbora gehiago ematea suposatzen bait zuen, gelatik kanpo edozein txoko, pasilo etabar erabiltzea, ikasleak beren gisara lanean uztea, ordutegi banaketa orokorrarekin apurtzea... hots, elkarbizitza sistematiko eta ordenatu batetarako genituen oinarritzko arauak neurri batetan behintzat haustea.

Halere, alderdi positiboak gehiago zirela, gure ikaslegoaren onerako zela eta, bidezkoa iruditu zitzaigun.

### *GURE ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA*

Erreformak bereizten dituen zenbait punturi lotuko gaitzaizkio: AHALMEN ETA JOERAZ OSATURIKO HELBURUEZ lan egiten dugu. Ez da erraza izan, ez, ahalmenak lantzeko prozesuaz jabetzea. Geuregan, irakasleengan, datza lehen oztopoa.

Gure jakinduria adierazten aritu izan gara urtetan, guk dakiguna irakasten. Edukiak, kontenidoak izan dira eta diraute oraindik gure oinarriak izaten nahiz eta, konturatu gabe bada ere, beraien bidez haurrengan kapazitate batzuk lantzen ihardun. Edukiok, helburu, jomuga izatetik soportelak izatera aldatu beharra dago eta gaitza da ahalmena eta edu-





## HIZKUNTZA ETA MATEMATIKAREKIKO TREBETASUNAK lantzen dituen hizkuntza bat da

kiaren arteko erlazioa ikustea, bereizketa zehatza egitea. Betiko ariketak egin arren, lortu nahi dena, ikaslearengan sortu nahi dena, bestelakoa da eta konzeptu berriak dira azken finen.




Honek insegurantzia sentsazioa sortarazten du maisu-andereñoengan. Kapazitate bakoitza aspektutan banatzen da eta aspektu hauen definizioa, esanahia, hasiera batetan iluna agertzen zaigu. Eskuaratean asko erabiliz gero, soporte bakoitzarekin mila aktibitate eginez gero, jabetu gara beraien mami-az.

Intsegurantzia sentsazio berbera ematen digu ebaluaketak. Eduki baten menderakuntza soila baino gehiago da neurtu nahi dena: Helburutzat hartu den ahalmenaren desarroilo neurria litzateke jaso beharrekoa; ahalmena eskuratzeko prozesuan zein puntutan aurkitzen den ikaslea, zein zailtasun dituen eta zein suporterekiko diren horiek, hain zuzen ere.

Etengabe ebaluatzen egon beharra dago eta jakin ere, jakin behar da zer eta nola behatu.

Modulo bakoitzean ikasleei pasatzen diegun froga orokorren ondorioak ere ez dira aurreko sistemakoak bezain matematikoak. Guzti honek trukatarran jarri gintuen hasieran. Noiz esan ikasle bat bide onean doala Goi Zikloa hiru urtetan menderatzeko? Non dago denbora gehiago beharko dutenen neurria? Eta gutxiengo mailara iritsiko ez direnak, zer?

Luze hitzegin eta eztabaidatzeko gaiak dira eta poliki poliki baina, bagoaz aurrerantza bidea urratzen, astero bisitatzen gaituen kooordinatzaile talde teknikoaren laguntzaz eta gure artean modulo bakoitzean egiten ditugun bilerekin esker.



Ez ditugu bi gai hauek bakarrik ematen, are gutxiago, bi ardatz edo trebetasun hauen inguruan globalizaturik dauden era guztietako gaiak baizik. Bi nukleotan banatzen ditugu, A eta B. B nukleoa arlo zientifikoari edo dagokiona litzateke, A nukleoa, berriz, espresioari dagokiona.

Gure ikuspuntutik B nukleoa guztiz zehatza eta osatua eskaintzen zaigu, ez da honela gertatzen A nukleoarekin, ordea.

Hara gure arazoa:

Ikastola bat izanik D eredu-ko haurrak ditugu, beraz ikasketak euskaraz egiten dituztenak eta A nukleoko programa-keta gazteleraz burutu da, A eredu-ko haurrei zuzendua.

Nukleoaren barne estruktura, hizkuntzarekiko filosofia, zuzena iruditzen zaigu baina euskararen kasuan, bere egoera berezia eta ezagupen maila bestelakoa izanik, ez da nahikoa, ezta bidezkoa ere, itzulpen hutsa egitea.

Gainera Erreformak, zera auresuposatzen du: ikasleek hizkuntzaren teknika komunikatibo instrumentalak erabat menderatzen dituztela Erdiko Ziklotik, eta gure ingurunean behintzat ez da horrela gertatzen.

Gazteleraren interferentzia gero eta nabarmenagoa da eta haurrak oso urruti daude espresio zuzen, zehatz bat izatetik.

Eginbeharrekoa ez litzateke hizkuntzarekiko trebetasunak lantzea soilik, hizkuntza bera irakastea eta sendotzea ere premiazkoa zaigu.

Aurten D eredurako A nukleoaren berplanteiaketa helduko zaiola dirudi, baina eginkizun honetan esperientzia aurrera daramagun irakasleok



ere badugu zer aportatu, zer egokitu, eskualde edo eskola bakoitzeko euskararen ezagupen maila desberdina baita.

**IKASLEEN PARTAIDETZAN OINARRITZEN GARRA**, ikaslearen interesguneak kontuan izanik, ikaslea bere lanaren antolatzaile izanik eta bere lanak defendatu eta besteen aurrean aurkeztuz.

Eskola ordutako arratsaldeak projektutan ematen ditugu eta hemen igartzen dugu batez ere aurreko sistemarekiko aldea.

Haurrek, laupabosteko taldeak osatuz eskaintzen zaizkien projektuetatik gehien atsegin zaiena aukeratzeko dute. Gaia eta egin behar duten lana zehaztu eta beraien artean antolatu ondoren honako urratsak ematen dituzte:

- *Informazioa bilatu eta jaso.* Gaiaren arabera liburutegi, denda, lantegi, irakasle, aldizkari eta abarretara zuzentzen dira ahal duten datu gehien jaso ahal izateko.
- *Informazioa irakurri eta sailkatu.* Erabili behar ez dutena baztertu eta artxibatu egiten dute.
- *Projektuaren egitaraua berrikusi eta zehaztu.* Aukeratutako informazioaren arabera.
- *Datu edo materialak aztertu.* Eskemak, laburpenak edo esperimentuak eginez.
- *Txosten bat egin.* Ondorioak edo konklusioak idatziz. Lana banatu egiten dute.
- *Projektua komunikatu.* Besteen aurrean egindako lana aurkezteko prestatu egiten dira.



Hasiera batetan projektu hauek irakasleak zuzenduak izaten ziren baina piskanaka-piskanaka, ikasleak iniziatiba hartu eta behin teknika ikasiz gero laguntza handirik gabe moldatzen dira.

Haurrak pozik jarduten dira eginkizun honetan eta guk ikusten dugunez, ikerketa lanean abiatzeko bide ezin hobea da, ikasleari iniziatiba handia eskatzen dio, hainbat aktibitate desberdinetan aritzen direlarik taldeko harremanak sendotzen dira, erabakiak hartzera behartzen dituzte.

Iazko ikas egoera hauetatik oso esperientzia politak ditugu jasoak. Aipagarria litzateke produkzioarena, esate baterako. Haurrek produkzio motak eta produktuen prozesuak aztertu ondoren, lantegi antzeko bat antolatu zuten ikastolan. Palomitak, errokilak, mazapa-

nak etabar egin zituzten eta herriko azokan postuak jarri ondoren saldu. Aldez aurretik publizitatea prestatu zuten Loiolako Herri Irratian eta Eskoriaztako barne-telebistan anuntzio publizitarioak grabatuz.

Egunkarietako anuntzioak ere egin zituzten. Ikusi egin behar zen egun haietako aktibitatea! Zoratu egin gintuzten denok, guraso, irakasle eta lagun!

**GURASOEN PARTAIDETZA** ere indartzen du neurri batetan erreformak. Gurasoak berez ez dira aurreratzen, baina behar izan ditugunean, oso erantzun egokia eman digute. Zenbait projektutan beraien laguntzarekin kontatu dugu, gaiaren espezialistak zirelako, lantegietan informazioa edo datuak jasotzeko bitartekoak zirelako edota, errokilak eta mazapanak egiten zekitelako.

Gurasoen inplikazioa bati-  
pat, ikasleen bitartez lortzen  
dela iruditzen zaigu. Egunero-  
ko bizitzakoak hau da, egoera  
errealzko arazoak dira hain  
zuzen haurrek ikertzen dituzte-  
nak, beraiei interesatzen zaiz-  
kienak; eta gai hauetan badute  
gurasoek zer esanik, semeek  
etxera kontsultatzeko darama-  
tzatenak ez dira eduki abstrak-  
toak, beren bizitzako esperien-  
tziaz erantzun ditzaketenak  
baizik.

Erreformako gurasoek era-  
gin handiagoa dute beraz, se-  
meen heziketan. Bestalde, Eba-  
luazioko informeak ulertzeko  
zailtasunak dituztela eta, mo-  
dulo bakoitzaren bukaeran  
ikastetxera deitzen ditugu in-  
formeak jasotzera eta hurrengo  
moduloko egitaraua ezagutze-  
ra.

Bakarkako bileretatik kan-  
po, komunikazio sistematiko  
honek ere erraztu egiten ditu  
gurasoekiko harremanak eta  
beraien kontzientzia hartzea  
talde bezala.

Noizbehinka galdekizun

baten bitartez jaso izan dugu  
beraien eritzia erreformari bu-  
ruz eta guztiz positiboa izan  
dela esan beharra dugu.

IRAKASLEON ERRE-  
ZIKLAIA da gure eritziz aipa-  
tzeko beste oinarrizko puntu  
bat. Derrigorrezkotzat jotzen  
dugu irakaslegoa erreformaren  
filosofiaz guztiz jabetzea. Men-  
talizazio prozesu bat jasan be-  
harra dago ahalmenen desarroi-  
loak duen garrantziaz jabetze-  
ko eta ez da egun batetik beste-  
ra egiten den aldaketa bat. Ira-  
kasleak utzi egin behar du kla-  
seko zentroa izatez eta gidari,  
orientatzaile bihurtu. Ikasleak  
izan behar du protagonista.

Guri, bi hilabetetik behin  
Iurretan egin ditugun ihardu-  
naldiek, talde teknikoaren bisit-  
aldiekin batera, asko lagundu  
digute mentalizazio prozesu  
honetan. Halere, ikastolan ber-  
tan osatzen dugun ekipokook  
eguneroko lanetan, batzarre-  
tan, izan ditugun eztabaidak eta  
elkarrizketak izan dira, batez  
ere, erreformako helburuak eta  
filosofia mamitzen lagundu di-

gutenak. Azken finean, taldeko  
elkarlanak bultzatzen gaitu era-  
gozpenei irtenbideak bilatzen  
adostasun batetara heldu arte.

Administraziotik errezik-  
lariarako ematen diren urratsak  
bestalde zuzenak iruditzen  
zaizkigu eta banatzen den ma-  
terialaren eskaintza zabala eta  
egokia. A nukleoan euskararen  
planteiamendua, lehenengo  
hizkuntza bezala, ez da aurki-  
tzen dugun hutsune bakarra.


Konklusio gisara zera genu-  
ke, Goi Ziklorako burutu den  
erreforma aportazio positiboa  
dela oinarrizko heziketa oroko-  
rrerako eta bere ildotik abiatzea  
merezi duena.

Gure ikastetxean antzema-  
ten genituen arazoak (motiba-  
zio eza, antolamendua, progra-  
mak,...) sistema honek neurri  
handi batetan saihestu dituela,  
beraz.

Jarraipenik izango ote Ba-  
txiler Orokorrean? Gure bu-  
ruetan beste kezkarik ez dago.

(ESKOLA Aldizkaritik ja-  
soa)





## Hizkuntzen Egoera Naturala

ISOGLOSAK,

DIALEKTOAK,

ORDEZKAPENA

STANDARDIZAZIOA

PLANGINTZA

Hemen doakizuen artikulutxoa, Txillardegi-ren Soziolinguistika Ikastaroaren lehenengo hitzaldia da. Berau, 1987.ko Urtarrilaren 14ean eman zen, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak, alde zaharrean duen "Doctor Camino" liburutegian.

Hamar hitzaldi izan ziren guztira eta berauekin ale monografiko bat argitaratzeko asmoa dugu, Aurrezki Kutxari esker.

Hitzaldiaren interesgarritasun eta bizitasunagatik, transkripzioa bere horretan eskaintzen dizuegu nahiz eta gero, monografikoa pisika bat orraztuxeago atera.

Beraz, bego horretan.

ISILIK aldizkaria

Euskal Herri honetan "gramatikari" pila bat izan eta dugu oraindik, jakingo duzuen bezala. Oso normala baita, euskaldun bakoitzak bere euskaldun izena merezi ahal izateko edo, bere "gramatikatxoa" egitea. Eta hori berez ez da txarra baina, hemen beste arazo bat gertatu da, hots, *gramatika arau emaile* asko agertu zaizkigula; nola egin beharko litzatekeen adieraziz, baina oso azterketa zientifiko gutxi eginez.

Guzti hau oso normala da, hain zuzen ere L. ARACIL-ek dioenez, gure Herrian Elizaren eragina hain handia denez oso normala da horrelakorik gertatzea eta, adibide hau ematen du: Jaungoikoak deitu zion halako batetan Moisesi eta goitik behera esan zion, "Hau da Legea, orduan Moises jeitsi zen harriarekin,... etabar, etabar. Hau da, goitik beherako joera hori, Elizaren bidez etorri zaigula eta, joera hau zientzietan ere oso nabarmena omen, eta gramatika kontutan zer esanik ez. Modelo bat definitu eta gero autorizaturik dagoen jendeak (apaizak, normalki) jendeari saltzea; nola egin behar den, alegia.

Eta behinere edo oso gutxitan egin da alderantziz, hots, behetik gora, eta hain zuzen ere Soziolinguistikaren eginkizuna hori da; *Hizkuntzaren egoera ikusi nola dagoen eta behetik gora aztertuz, nola berreskura edo berregitura daitekeen.*

Beraz, planteiamendu hau guztiz desberdina da. Eta gainera, gramatika deskribatzaile bat izan balitz, bada, gaitzerdi, zeren gramatika deskribatzailea ere zientifikoa izango bait litzateke (leku batetara joan eta ikusi jendeak nola esaten duen...)

Gramatiketan aldiz ez, denak paradigmak izaten dira (ez entzuten dena gramatiketan agertzen dena baizik) nolabait esateko, pentsamentu paradigmatico hori hemen oso modan egon ohi da beti eta oso sakonean sarturik daukagu guztiok Euskal Herrian.

Eta guzti horren kontra joan beharra dugu, eta hizkuntza abstratoki ikusi ordez, bada garaia ikusteko hizkuntza *nola gertatzen* den hiztunen munduan eta gizartean. Eta Soziolinguistikak duen joera berri hau, ez dut uste Euskal Herrian eman denik orain arte. Piskanaka hasia da baina ez da izango tximista bezala jakina, prozesu bat baizik. Eta prozesu horretan gaude. Jendea konturatzen hasia da jadanik, hizkuntzaren arazoa ez dela gramatika arazoa bakarrik, baizik eta Herri baten hizkuntza dela arazoa, eta ez gero liburuetan geratuko den hizkuntza, zeren hizkuntza hori gero jendeak ez badu erabiliko, ez bait dugu deus konponduko, eta hori da arazoa.

Eta Soziolinguistikak hori aztertzen du; Hizkuntza pertsonengan eta gizarteetan, hain zuzen.


Honaino lehenengo puntua. Eta Soziolinguistikaren lehenengo kapitulura sartuko gara, hots, *Hizkuntzak nola dauden munduan, nola etorri diren gungaino konturatzea*, alegia.

Eta lehenik, guzti hori ulertzeko ISOGLOSAren ideia ikusi beharko genuke.

#### ZER DA ISOGLOSA?

Soziolinguistika funtsatzen duen ideia nagusia, hitz batez, muga linguistikoa da. Eta Dialektologia hasi zenean sortu zen Isoglosa, eta Euskal Herrian denak piska bat gramatikariak garen ez gero, isoglosak guretzat oso errazak dira, oharkabean eta ohituta gaudelako edo, diferentziak ikusten ditugu gure hizkuntzan, adib., aski dugu hemendik ateratzea, Hernanitik atera eta Urdaburu inguruetan aldiz, "ERRAN" Horrek zer adierazten digu? Hor *muga linguistikoa* dela; administratiboki Gipuzkoa izan arren, linguistikoki Nafarroa delako.

"ERRAN/ESAN" dela eta inkesta bat egiten badugu, demagun Hernanitik Nafarroa aldera abiatuz gero, ondoren Berastegitik Nafarrorantz, Leitze edo Jaunsaras edo inguru horretara eta gero, Altsasutik behera, eta Iparraldera berdin, bada, hor aurkituko genukeena zera da; (atlas linguistikoa begiratu).



Hori izango litzateke, beraz *Isoglosa* bat, hau da, “ERRAN/ESAN” en arteko muga markatzen duten puntuak eta horiek osatzen dute lerro bat eta hori izango litzateke ISOGLOSA.

Hori ikusirik, goazen bada beste adibide bat ikustera “BESTE/BERTZE” adibidez.

Gauza bera egingo dugu inkesta baten bidez galdetuz, eta hemen ere beste isoglosa bat aterako zaigu, hots, “Beste/Bertze” bereiziko dituen muga linguistikoa.

Gerta daiteke behar bada, (eta hau oso inportantea da) bi isoglosak muga politikoak bezalakoak ez direnez, normalki leku desberdinetatik pasatzen dira eta hau ez da Euskal Herrian gertatzen den fenomeno bakarrik, beste Herrialdeetan ere gauza bera gertatzen baita (ikus, Ingalterra, Frantzia, Belgikan e.a., mundu guztian ematen den fenomeno dela ez dezagun ahantz).

Beraz isoglosa guzti horiek horrelako zerbait osatuko lukete (iksu mapa; Gipuzkera, Nafarrera). Behar bada zenbait puntutan batu bezala egingo dira baina, gero zabalduz joango lirateke, eta hor muga bat baino gehiago, eskualde bat agertuko da, transizioeko eskualde bat.

Orduan, hemen ikusten dugu muga politiko eta linguistikoaren arteko diferentzia, hau da, muga politikoak konkretoak, zehatzak dira eta linguistikoak berriz, zabalagoak.

Gero zenbait lekutan, demagun mendi handi bat edo, ibai bat edo horrelako fenomeno geografiko inportante bat baldin badago, hor batu egiten dira, zergatik? Hor muga naturala dagoelako, eta muga naturalarekin ere azkartu egiten dira muga linguistikoak, eta isoglosak batu egiten dira.

Baina ez badago arazo geografiko inportanterik, gerta daitezke isoglosak bapatean zabal-

tzea, eta orduan, transizioeko eskualde handi batetan bilakatzea, eta Euskal Herrian ere berdin gertatzen da.

Orduan, isoglosak horrela pasatzen badira (ikus, mapa) eta mapan horrelako zerbait gertatzen bada (Nafarrera/Gipuzkera) honoko honetaz ohartuko gara, isoglosa arazo hau dela eta, dialektoak sortuko zaizkigula, alegia. Isoglosa asko pasatzen badira leku beretik muga bat sortuko da, zabalago edo hestugoa.

Dialektoari “Euskalki” deitzea, Azkuek duela 60ren bat urte proposaturikoa da eta badirudi onartua dagoela, bertako dialektoaz dihardugunean; kanpoak beti dialektoak izango bait dira.

Beraz, dialektoen arteko muga garbi gelditzen da ez dela lerro bat, eskualde bat baizik.

Beno, lehenengo gauza inportante bat, jakingo duzue, duela urte batzu (gaur egun baino gehiago, agian) izugarritzko lanak eta buruhaustak eman dizkigute Bizkaierak, Gipuzkerak, Nafarrerak, e.a.ek. Ideia honek gerla handia eman arren, ez du funts handirik gero ikusiko dugun bezala, nahiz eta ondorio txarrak izan Euskal Herriarentzat. Euskara batuaren kontra eraso hauek egin izan direlako, euskalkiak baztertu egin direla e.a., e.a.

Dialektoa horrela sortzen baldin bada, horrek adieraziko digu dialektoen ideia errelatibizatu egin behar dela eta asko gainera. Lehenengo gauza eta hau leku guztietan gertatzen da, (ikus mapa; Demagun hau isoglosa bat dela eta, A euskalkia eta B euskalkia; orain egin dezagun beste isoglosa bat A B. Beraz, bigarren isoglosa honi buruz ezkerrean dagoena A izango da eta eskubialdean dagoena B).

Hori bi isoglosa bakarrik hartuta. Baina, noski, edozein pareri buruz defini daiteke isoglosa bat, beraz ohartuko zareten bezala, arazoa askoz konplexuagoa da.

(Euskaltzaindian orain egiten ari diren "Atlas Linguistiko" horretako mapa horretan bi mila eta gehiago galdera dituzte eta, gerra aurrean Azkuek zuzenduriko "Elizkizun Irukoitzan" begiratzen badugu, hirurehun (300) bat galdera agertzen dira eta, hortik 300 isoglosa ateratzen dira, beraz, bi kasu besterik ez ditut aipatzen nolako arazoa sortzen den ikus dezazuen.

Orduan, goazen lehenagoko harira: Hemen ezkerrean A da,; eskubialdean B, eta bien artean, zer da?

Ikus dezakezue, A dialektoa izan daiteke edota, B dialektoa izan daiteke, segun eta nola begiratzen dugun. Beraz, dialektoaren ideia ez da inondik ere absoluto bat. Eta isoglosak paralelak baldin badira, transi-

zioko zerbait sortzen da tartean eta banda edo zerrenda horretan zer dialekto egiten den galdetzek ez du zentzu logikorik.

Beraz, hori da lehenengo arazoa, hau da, isoglosak ez badira leku beretik pasatzen horrelako bandak sortzen dira eta banda horien barruan kontradikzio logikoa dago beti; hortaz, banda horien barruan ez dakigu zer egiten den.

Horixe da une honetan Oiartzunen gertatzen dena esate baterako: Oiartzunen "dut" esaten bada, Oiartzungoa, nafarrera dela esan beharko genuke, baina, nafarreraz "erran" esaten badute eta gipuzkeraz "esan" esaten bada gauza bera adierazteko, bada, sentidu horretan isoglosa honi buruz Oiartzunen gipuzkeraz egiten dute.

Horrelako gauzak gertatzen zaizkigu Gipuzkoa guztian.


Beste adibide bat, aditza dugu. "Haiek dute" adib.; Azkoitia; "Haiek debe" esate dute. Bizkaiera ofizialean "dabe" baldin bada, Azkoitia puntu honetan bizkaiera dela esan daiteke,

baina beste puntu askotan ez, beraz, oso errelatiboa da.

Bigarren arazoa eta gogorra goa oraindik ere; Isoglosak mundu guztian gurutzatu egiten dira askotan. Beraz, demagun hau dela isoglosa bat (mapa) eta hau beste isoglosa bat eta, lehenengo isoglosa bat horri buruz ezkerretara dagoena eman dezagun A dela eta, eskubian dagoena B, eta ikus dezagun hor ateratzen den muga (mapa), hemengo fenomeno hau leku guztietan gertatzen da. (Adib.; Hemen duzue Inghaterrako kasu bat).

Orduan, ohartuko zinetenez, parte honetan (ikus mapan) benetan A hitzegiten da (gipuzkeraz) eta hemen berriz B hitzegiten dela, hori egia da, beraz eskualde horietan badago halako barne-logika bat, baina geratzen den tarte horretan zer hitzegiten da? Berriz lehen aipaturiko kasuaren antzekoarekin topatzen gara, ez du koerentzi logikorik; A eta B biak, segun eta nola hartzen den.

Beno horrelako egoera gertatzen den bakoitzean sortzen





da halako desadostasun logiko bat (mapa); bi triangelu hauetan egia da badagoela koerentzi bat eta isoglosak logikoak dira, baina beste bi parte horietan ez du sentidurik beraz, eta zer hitzegiten den galdetzean, ez dakigu.

Beraz, horrek zer esan nahi du? Bada, dialektoak oso errelatiboak direla, baina errelatiboak direla arrazoin logikoarengatik, eta hau oso inportantea da.

Eta hau ezin da konpondu arazo logikoa delako. Isoglosek bereizten dituzten eskualde horietakoak dialektoak baldin bada, horrelako fenomenoetan dialekto ideiak ez du sentidurik. Beraz, esaten digutenean: "El vizcaíno está siendo marginado"; horrek ez du ezer esan nahi, sentidu horretan. Ez da arrazoin politikoa, logikoa baizik, mundu guztian gertatzen den fenomeno baina.

Beste arazo bat, eta gauzak okerrago jarri dituen: Planteiamendu hauetan, planteiamendu

geografiko hauetan (Geolinguistika izango litzateke), badi-rudi esaten ari garela etxez-etxe joan behar dela galdezka (eta hori egia da baserrietan sartu eta galdetu; "Aizu hemen nola esaten da,...? eta orduan erantzungo dute,...) Hori garbi dago. Baina eman dezagun etxe horretan senarra Hernaniarra eta emaztea Lesakarra direla; (eta horrelako kasuak gertatzen dira), horrelako familietan zer gertatzen da?

Bada, horrelako kasuei BIMORFISMOA dietzen zaie.

Etxe horietan ez da planteiatzen horrek sortarazten duen arazoa (aitak, *esan/erran* amak) baina, bi formok entzuteari esaten saio *bimorfismoa*.

Bimorfismo hori lehen oso gutxi ematen zen, jendea orain baino gutxiago mogitzen zelako (auzo bereko edota, herri berekoen artean ezkontzen zirelako...)


Baina mundu modernoan egun, hori gero eta gehiago dago; gero eta maizago gertatzen da, eta horrek ondorio linguistikoak ditu, zeren eta, horrek esan nahi du bakoitzak bere hizkuntza ekartzen duela eta norberak bere joera sartzen duela oharkabean. Orduan, hizkuntza mailan lehen zegoen batasun hori gaur egun gero eta gutxiagotuz doa. Eta Euskal Herrian ere fenomeno bera dugu, eta inkesta bat eginez gero, ikusiko genuke gure artean POLIMORFISMOA dagoela; behar bada, polimorfismo pasiboa izango da.

Beraz, horrek esan nahi du bimorfismoa edo polimorfismoa mundu modernoan oso hedaturik dagoen fenomeno dela; lehen ez, lehen lekuan lekuko hizkera egiten zen, baina gaur egun ez, eta gero eta gutxiago.

Momentu honetan pentsatu besterik ez dago zer gertatzen den eskolan. Orain haurrak ateratzen dira autobusetan, biltzen dituzte eta ikastetxeetara eramaten; orduan, haur horiek etxetik dakarten euskarā eta eskolan ikasiko dutena oso desberdinak dira, askotan, nahigabe baina, irakaslea dela edota, halako nahaste-borraste bat sortzen da. Beraz, hor ere bimorfismoa sortzen da.

Beste arazo larriago bat; duela ehun urte hemengo zibilizazioa nahiko baserritarra zen; jendea oraindik ere, herri txiki edo baserrietan bizi zen, ez zegoen hiri handirik. Momentu honetan berriz kaletarkuntza edo gizartearen hiritarkuntza gertatu da, eta oraindik ez da bukatu, gero eta gehiagotzen ari delarik. (Adib; momentu honetan Erreteriatik Usurbileraino gutxienez, lehen txikiak ziren herriak gaur egun izugarriak dira).

Beraz, hemen beste fenomeno bat ari da gertatzen, alegia, hiritarkuntzarekin batera







beste fenomeno bat ematen ari delako. (Adib. Goizuetar bat langabezia zegoelako, Donostiara etorri da bizitzera eta alboko etxebizitzan lekeitiar bat bizi da; behekoan aldiz, Baztandar bat, e.a., e.a.. Inmueble horietan isoglosa hori nondik pasatzen da? Zer sentidu du isoglosa horrek kaleari buruz? Mendialdean bai, baina, Urbietakaleko inmueblean?)


Isoglosa beraz, oso errelati-boa da momentu honetan; due- la ehun urte balio zezakeen bai- na orain ez. Eta zer esanik ez New Yorck-en, zein kaletatik pasatzen da?

Hori bukatu da, eta dialek- to ideia horrekin lotuta, beste ideia bat sortu da; soziolektoa- ren ideia, alegia.

### ZER DA SOZIOLEKTOA?

New York edo horrelako hiri handietako jende klase so- zialaren arabera da jendea- ren hizkera ere. Esate baterako, beltzak edo portorrikeinoak, edo horrelako taldeak eta Los Angeles-en bertan, adib.; hiru- rehun mila koreatar bizi dira auzo batean, beste auzo batean beste hainbeste japoniar; beste auzoetan txinatar eta afrikar beltzak, e.a., e.a.; bakoitzak be- re auzoa du eta horrelako ka- suetan behar bada sailkatu dai- teke dialekto mailan, baina hori ere ez da egiazkoa, zeren eta, horietan ere, demagun, poste- txetean langile denak nahasirik dauden leketan, zer sentidu du isoglosak? Ez du inolako senti- durik.

Hemen gertatzen dena da, bertako burgesiak, Beverly Hills eta horrelako auzo dotoretako jendeak alegia, horiek hitzegi- ten duten hizkera ez da berauen morroi eta neskameek hitzegi- ten duten hizkera bera etxe ber- berean biziarren; orduan muga soziala da, hortik dator *sozio- lektoa* ideiarene sortzea. Lehen dialektoaren ideia sortu zen be- zalaxe, mundu modernoan ba- tez ere, hau da, oso hiritartua dagoen munduan soziolektoa- ren ideia sortu da. Eta egia esan, horrelako hiri handietan eta Euskal Herrian ere nolabait esateko, hein batean ere, antze- ko zerbait gertatzen da ("Esai- dak/n zer klase sozialetakoa haizen eta esango diat/dinat nola hitzegiten duan/dunan). 23



gora behera, parametro batzu har daitezke eta parametro horien arabera sailkatu daitezke pertsonak, dialektoak edota, soziolektoak behar bada. eta orduan ikusiko genuke oso errelatiboa gertatzen dela azkenean dialektoaren ideia.

Beste argumento bat eta goikoa baino inportanteagoa (eta mila kritika egin daitezke oraindik). Goian aipatu dugun isoglosa itxuraz behintzat, fonologikoa da, egia esateko, "S" eta "R" konparatzen ari gara; fonema baten ahozkerari buruzkoa, elegia.

"Det" eta "Dut" hartuz gero aldiz, isoglosa hori morfologikoa izango litzateke. Beraz, isoglosak maila desberdinetakoak izan daitezke, hots, isoglosa fonologikoak; isoglosa morfosintaktikoak, isoglosa lexicak, e.a....

Zer-nolako inportantzia eman behar zaio isoglosa bakoitzari? Hemen soluziorik gabeko arazo batekin topatzen gara; zeren eta, inork ez bait daki nola baloratu behar diren isoglosak. Zeren eta, isoglosa bat halako leku batetik pasatzen bada eta beste isoglosa bat bestetik, zein da bietan inportanteena? Inork ez daki.

Alde batetik, pentsa liteke elkar-ulerkuntza (intercomprensión) izan daitekeela erizpide on bat, esate baterako, isoglosa batek ez badu zailtzen elkar ulertzea, orduan isoglosa hori ez da oso inportantea izango, eta alderantziz, hots, zailduko balu, eta problema larriagoa denez, beste koefiziente bat eman beharko zaio isoglosa horri.

Zeintzu dira problema horiek? Zenbat balio dute orduan, "Det/Dut" eta "Erran/Esan" isoglosek? Hemen ere ez dugu erantzunik. Nahiz eta mapak hemen izan, hori nola baloratu behar den inork ez daki eta ez Euskal Herrian, mundu guztian baizik. Baztango eta Lapurdiko

Hori gure artean ez da hainbeste ikusten, baina badago halako zerbait.

Euskal Herrian, arrantza-leak eta baserritarrak direla euskaldunak baldin badakigu, Negurin euskararik ez dela egingo ere jakingo dugu, eta ez da kasu geografikoa, zeren eta, Negurin Amoroto-ko neskameren bat baldin badago, honek euskaraz egingo du, beraz, segun eta zein klase sozialetan dagoen, modu batera edo bestera hitzegingo du, edota, hizkuntza batean edo bestean; orduan honek ere frenatu egin du dialektoen ideia.

Hitz batez, hizkuntzak praktikan nola presentatzen diren une honetan jakiteko, bada go dialektoen ideia, eta hori, "sailkapen geografikoa" da (arestian aipaturiko "pega" guzti horiekin eta gainditu ezinezkoak, gainera).

Herri handietan berriz, soziolektoen ideia sortu da (Hizkuntza, klase sozial bakoitzaren arabera, alegia), eta honen ondorioz berriz, beste ideia bat atera da; "persona bakoitzak bere modura hitzegiten duela". Eta ideia hau praktika mailan oso nabaria da. Adib.; Aparailuen bitartez aztertzen bada hemen gaudenon "S" a, esate baterako eta, espektograma bat eginez gero, mila arazorengatik "S" guztiak nahiko desberdinak izango lirateke, (Gizon eta emakumezkoenak akustikoki desberdinak, lekua-ren arabera, e.a....)

Honek esan nahi du "S"aren mailan ere, bakoitzak bere idiolekto pertsonalak ditugula.

Zer gertatzen den? Halaz ere eta, funtsean idiolektoak desberdinak izanarren, gutxi

euskara esate baterako oso antzekoak dira. Zer diferentzia duten? Badirudi diferentzia bakarra "H"aren problema dela; orduan, hori oso inportantea al da? Bai ala ez? Inork ez daki zeren eta, Elizondon eta Azkainen oso berdintsu hitzegiten dute. Orduan "H"arengatik zenbat ematen zaio? Ezin da esan, eta froga da, Bonaparte zalantza gorritan ibili zela ez zekielako zer egin horrekin, hau da, Baztango euskara Nafarrerarekin jarri ala Lapurterarekin, zergatik? Ez zekielako nola kontatu. Aditzari buruz berdina da dudarik gabe, baina fonologia aldetik, "H"ari buruz ez. Orduan zer? "H"rik ez izatea oso larria al da? Inork ez daki, Mitxelenak ere ez; hor dudak izan ditu eta beti esaten du berak sailkapen batzutan Bonapartek izan zituen arazo berberak izango lituzkeela eta galde-tuko baliote Baztango euskara zergatik ez duen jartzen Lapurterarekin eta zergatik Nafarrerarekin bai, Bonapartek egin zuen bezala? Ez dakiela.

Beraz, guzti hau azkenean sekulako problema da. Orain arte ikusi dugunez hori da egoera, eta Euskal Herrian arazo bera dugu, eta une honetan, Euskal Herrian zenbat dialekto edo euskalki dagoen galdetzen baldin bada, eta lehen esan dizuedan arrazoin horiek kontutan hartzen baditugu, ez daki-gu.

Nik orain galdetuko banizue, zenbat euskalki dago momentu honetan Euskal Herrian? Zer erantzungo zenidate-ke? Erantzunik ez dago.

Baina badugu beste irtenbide on bat. Bonaparte Printzeak esan zuenez zortzi (8) omen dira. Hori izan daiteke soluzio bat. Zergatik? Bonaparte izan delako euskal dialektologian isoglosa hauek seriooki bilatzen ibili den lehendabiziko pertsona. Baina gero Azkue etorri zen eta honen ustetan gauza batzua alda zitezkeenez, zazpi (7) euskalki zirela esan zuen, eta gaur egun hori ukatzeko beste arrazoin handiagorik ez dagoenez, zazpi direla esaten da. (Mitxelena barne).

Hauek dira Azkuek proposatzen dituenak; badaude lau oso ezagunak: Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera eta Zubera-ra. Gero daude Baxenafarrera edo Nafarrera Beherea eta Goi-Nafarrera edo Nafarrera Garaia eta Erronkariera.

(Hemen daukat hain zuzen ere, Bonaparteren arabera, Pedro Irizar-ek argitaratutako maparen sailkapena, hots, zazpi euskalki horiek eta hogeitabost (25) azpi-euskalkiak).

Bonapartek beraz, zortzi bereizten zituen hain zuzen ere; Baxenafarrera (Ekialdekoa eta mendebaldekoa) eta Nafarrera (Ipar nafarrera eta Hego-nafarrera) bereizten zituelako eta Erronkariera aldiz, Zubere-rarekin elkartzen zuen, horrela, zortzi geratuz.

Hemen beraz, badirudi izugarrizko nahaste-borrastea dagoela hainbeste euskalkirekin. Japon-en berriz, hogeitabederatzi (29) dialekto omen. Honekin adierazi nahi dudana zera da; mundu guztian gertatzen dela horrelako kasurik.

Beraz, gure arteko hau normala da. Dena den, esan behar da baita ere, euskaldunok hain gutxi izanik diferentzia hauek izatea nahiko larria dela, baina hala ere, ez dugu larritu behar.



Kaukason, indoeuropeoak (armenioa, kurdoa...) kontatuz gero, berrogeitik (40) gora dira eta Kaukaso Pirineoen tamainokoa da, gutxi gora behera eta bertan, batere antzik ez duten berrogeitaka hizkuntz hitzegiten dira. Beraz, Kaukason egiten diren hizkuntza gehienak Kaukasikoak dira eta gutxi batzue (hiruzpalau) indoeuropeoak izanik, erabat desberdinak dira. Egoera hori ikusirik, eta proportzioan gu ez gaudela hain gaizki aitortu beharko dugu.

Nigerian (80 miloi biztanle) aldiz, hirurehun (300) hizkuntza hitzegiten direla kalkulatu da, beraz, egoera okerragoak ere badaude.

Nueva Ginean (2 miloi) kalkulatu da zazpirehun (700) hizkuntza hitzegiten direla, inork ez bait daki zenbat diren ere.

Beraz, gure egoera ere ez dago hain gaizki, zeren, azken finean, hemengo zortzi euskalkiak ez bait dira hain diferentek ere (guztio elkar ulertzen dugu) eta ez da hainbesterainoko arazoa. Ez dugu desanimatu behar.

Eta gauzak horrela presentatzen badira guztio elkar ulertzen ezin diren orain arte etorri zaigun fenomeno bat dela; gauza horrela zegoen; mundu guztian horrela gertatu da. Hortaz, orain arazoa hau da: Hori aspaldiko Euskal Herriari zegokion egoera bat dela eta hemen ez badago proiektu nazionalik (eta hau nire eritzia da) nik ez dut ikusten zergatik aldatu behar den hau, esan nahi dut: Ez badago proiektu nazionalik eta ez badugu elkar ondo ulertzen erdaraz hitzegingo dugu eta kitto! Azkenean, hizkuntza bat tresna funtzional bat eta elkarrekin mintzatzeko tresna baldin bada, eta beste hizkuntza batetan molda bagintezke, ez dugu zergatik batua egin beharrik, bakoitzak nahi duen beza-

la egin dezake eta kitto!

Planteiamendu hau "passeismo" hutsean begiratu gero, "orain arte horrela izan da eta hori da" eta ez badago nazio-projekturik, nik ez dut ikusten planteiamendu hau zergatik ez den onartu behar.

Esango didazue agian, diferentea da. Beno bai, hori egia da. Lehen jendea ez zen asko mogitzen, beraz, euskalkien arteko diferentzia hauek ez ziren hain larriak.

Euskal Herrian euskaldunok elkarrekin benetan bizitzeko proiektu bat baldin badago (ez edozein nazio-proiektu, noski) eta ez badugu elkar ulertzen, batzuetan txistek egin beharrean aurkituko gara. (Adib.; Batek ilarrak eskatu eta besteak babarrunak atera).

Baina hori ez da posible proiektu nazional batean. Proiektu nazional batean elkar ulertu behar dugu eta elkar ulertzeko egoera hau ezinezkoa da. Hor batasun bat bilatu behar da. Horregatik diot: Ez badago nazio-proiekturik eta ez badago benetan Euskal Herria, Herri bat bezala bere hizkuntzan eraikitze asmorik, hemendik bertatik esango nuke nire hitzaldiok soberan daudela. Zeren eta, guk ezin dezakegu Soziolinguistika egin amerikanoek egiten duten bezala, hots, guztiz abstrakzioetan hartu eta fonetika aztertuko balute gisa aztertu. Hori ere egin beharrekoa izango da baina, gure kasua ez da hori; gure hizkuntza da eta ez da gauza abstrakto bat, ez da hizkuntza abstrakto bat.

Hortaz, hau guztia gainditu nahi badugu, horregatik da, proiektu bat dugulako alegia. Hain zuzen ere, gure Herrian Euskara normalizatzeko proiektua, (normalizatu diogunean, normalki alor guztietan esan nahi bait da) eta noski, ez bada horrelako asmorik nik ez dut ikusten planteiamendu al-

daketaren beharrik. Eta aldeantzik, proiektu-nazional horren beharrik ikusten ez dutenek, hots, "Los vascos podemos seguir siendo vascos sin saber euskara" eta horrelako planteiamendua dutenak, nik jadanik baztertuak ditut, jende hori gurè etsaia da eta kitto!

Nire ustez gure Herria hizkuntzarik gabe ez da ezer, (Huesca adib.) eta gure hizkuntza planifikaziorik gabe eta euskalki hauek gainditu gabe, jai dugu. Hori argi eta garbi diot.

Beraz, egoera hau leku guztietan eman da, eta hizkuntza normalizatu nahi bada, hots, normalizatua diogunean normalki erabilia izan dadila alor guztietan esan nahi da.

Orduan hemendik aurrera beste herrietan nola jokatu duten ikustera pasako gineteke.

# ISILIK!

TORINO (Italia)  
HEZKUNTZA SINDATU  
HARTU DUEI UDALA.



# ISILIK?

HALERRA...  
ELKADURA

'LANGLE' KASTOLA

PIAGET... ESKOLA BERRIA



# ISILIK.

haurra eta sexualitatea

estataletako borroka

elbira zipitria



C FREINET

# ISILIK...

PEDAGOGI ALDIZKARIA 3. aldia 1983 ekaina 200 orfitu


HEZIKETA BEREZIA  
HENRY WALLON  
ZER DUTE HAURREK IRAKURTZEKO?



MAGISTERIO ESKOLAK

# ISILIK,

PEDAGOGI ALDIZKARIA 4. aldia 1984 abendua 250 orfitu




# ISILIK:



# ISILIK =

PEDAGOGI ALDIZKARIA 5. aldia 1985 martia 280 orfitu



# ISILIK =

PEDAGOGI ALDIZKARIA 7. aldia 1986 ABENDUA 300 orfitu



KASU!

Aleok oraindik ere  
eskura ditzakezu  
ISILIKen helbidean!

## Gizakia eta errotak

“IKAS BIDE Ikastolako esperientzia”

### SARRERA

Eskolak (haurrak) badu bere zeregina bizi den inguru-  
nean eta inguruneak ere prest egon beharko luke eskolari  
(haurrari) bere esperientzia emateko. Begiratu batean oso  
ekintza erraza badirudi ere, askotan muzin egiten zaion leloa  
dugu haurra eskolatik kanporatu eta eguneroko zereginak  
lemaiokoen (iragandakoak nahiz egungoak) informazioaren  
jabe egitea.

Ondoan doakizun lantxo hau horixe besterik ez da: bizi-  
kera batek eta guk ERROTA aukeratu dugu) haurrari es-  
kain diezaiokoen altxorrari buruzko emaitza zuotako ba-  
koitzari eskaintzea. Ez ordea, halafede, zure gelatxo horni  
dezazun, honelatsuko beste edozerk eskain lezakeen guztia.

Ondoko hau, prozedura guztiaren azken emaitza dela ez  
ahaztu mesedez, aurreko guztia zuk egin beharreko lana da,  
noski.

### AURKIBIDEA

1. Gizakiaren sorrera.
2. Gizakia euskal herrian.
3. Gizaki hauen elekadura.
4. Errotaritza.
5. Urezko errotak.
6. Nola funtzionatzen zuen erreka errotak?
7. Beste eratako errotak.
8. Kontakizun, ipuin eta kantak.
9. Hitzondoa.
10. Zuek ere egin dezakezuen bisitaldi interesgarri. Bat dia-  
positiben azalpena, Errotei buruzko hiztegitxo.

### 1. GIZAKIAREN SORRERA

Gizakia\* sortu baino miloika urte lehenagotik animalia  
ugari bizi izan arren lurrean, Kristo jaio baino 600.000ren  
bat urte lehenago, batzuen eritziz eta askoz ere lehenago  
beste batzuk diotenez, agertu zen gizakia lurrean.

### 2. GIZAKIA EUSKAL HERRIAN (1)

Gaur Euskal Herria izenez ezagutzen dugun lurretan  
agertu ziren lehen gizakien berri, Kristo baino 150.000 urte  
lehenago inguruan dugu, arkeologoek\* PALEOLITOA\*  
izenez deitzen duten garaian. Hogeit edo berrogeiren bat bi-  
zilagun izango ziren gehienera ere.

Piskana-piskana ugarituz joan ziren eta NEOLITOA\*  
deitu garaian, Kristo baino 3.500en bat urte lehenago alegia,  
10.000ren bat izango ziren, agian.



### 3. GIZAKI HAUEN ELIKADURA

Lehen gizakiak naturak berez eskaintzen zizkion ehiza eta fruituei esker elikatzen\* ziren.

Geroago, animaliak hezitzen ikasi zuten eta honela sortu zen abel-hazkuntza\*. Aurrerabide honi esker, ehizaketari bakarrik begira egon gabe jan zezaketen, elika zitezkeen.

Urte asko igaro ondoren, haietako gizaki batek, ustekabean edo, ikusi ahal izango zuen nola, landare batzuk landatuz, beste berri batzuk jaiotzen ziren. Honela, lur-langintza\* hasi zen. Ez zegoen alde batetik bestera animalia larre\* bila ibili beharrik. Norberentzat etxebizitza finkoak eraiki zitzaizketen.



Elikakizun eskema

Elikatze eraren eskema

Funtzionamendukera bi harriren bidez egiten zen: bata, handiena, lurlean etzanda tinko jartzen zen bitartean, gainean zegoen txikiagoa esku indarrez bueltaka mugituz xehetzen zen alea. Alea gaikaldetik sartzen zen heinean, alboetatik erortzen zen irina, hau biltzeko jartzen zen larru baten gainera.

Erromatarrek, adibidez, bere armadarekin kanpaina edo konkistaren batetara zihoazenean, beste gauza askorekin batera, janaria, heltzeak, tresnak, sendagaiak, e. a., era honetako errotak ere eramane ohi zituzten.

Errotari bueltak etengabe ematen aritze lan hau esklabuek egiten zuten. Baina biztanlegoa gehituz zihoan heinean, irin gehiago behar zenez, "odol-errotak"\* asmatu zuten; lehengo errota berdina zen, baina harri handiagoz osatua eta asto edo beste abereren bat gelditu gabe bueltaka ibiliz funtzionatzen jartzen zena.




Goibeherazko errota eskema

### 4. ERROTARITZA\*

Lur-langintzak gizakiari jatekoak ematen zizkion, baina emaitza hauetako batzuk naturak emanda bezala jan zitzaizketen, gordinik\* alegia, fruituak adibidez; beste batzuk, ordea, erre beharra zegoen, haragia, hegaztiak eta arrainak esaterako; hirugarren batzuk, berriz, egosi egin beharra zegoen, lekak bezala; eta beste laugarren batzuk xehetu\*, aleak alegia: mijoak, garia, garagarra eta beste antzekoak. (Artoa, XV mende amaieran Ameriketatik ekarri zen Europan).

Xehetze honetarako, zenbait tresna erabili beharra zegoen. Leku batzutan "kolpe" era erabili zuten (eta erabiltzen dute), zurezko\* mortairuz\* gehienetan. Beste lekutan, berriz, harraskaketa\* era edo errotak erabili ziren.

Ezagutzen dugun lehen errotak goibeherazkoa\* izan behar zuen; hau da, lurlean etzanda jartzen zen harri handi bat eta gainean beste txikiago bat, hau eskuindarrez aurretik atzeraka edo goibeheraka mugituz xehetzen edo ehotzen\* zen alea. Geroago, mugimendu zirkularra asmatu zuten, errota birakaria\* sortuz. Izen hau, ROTA erromar izenetik dator eta gurrupila esan nahi du. Hemendik datorkigu euskarazko ERROTA izena ere.



Errota birakariaren eskema




Olabarrietako errota.Malatua.



5. UREZKO ERROTAK

Gure Aroko I mendean, VITRUBIO izeneko idazle batek liburu batetan agertzen ditu gureganaino heldu zaigun lehen urezko errotaren xehetasunak.

Asmakizun honi esker, lehenago gizakiak edo animaliek egiten zuten lana, uraren indarrak egingo zuen edo urindarren\* eraginez egingo zen aurrerantzean. "Urindarra" asmatua zegoen. Asmakizun iraultzailea zen benetan, gizakia eta animalia elikatu, sendatu, zaindu beharra zegoen bitartean (honek berarekin zekarren gastua, noski), urindarraekin, aldiz, ez zegoen makineria kontserbatu eta erabilpenagatik hondatzen ziren piezak aldatu besterik egin beharrik. Hau da, urindarra *dohako*\* *indarra* zen.




Odol-errotaren eskema

6. NOLA FUNTZIONATZEN ZUEN ERREKAKO ERROTA BATEK?



Errekako errotak PRESAzkoak\* edo URGELDIzkoak\* izan daitezke, ura errekatik errotara zuzenean sartzen den edo eta, errotara sartu aurretik ur biltoki edo urgeldi batetan pilatzen den kontutan izanik (bigarren hau bezalakoak dira Euskalerrian daudenetatik gehienak). Azkenengo hauetan, errekatiko urtegitik urgeldira edo ALDAPAROrak\* iragaten de ura KANALAREN\* bidez. Bide honetan UR ATEAK\* jartzen dira, nola behar denean ustutzeko hala ura desbideratzeko. Era berean, SARE batzuk ere jartzen dira zikinzeria, adarrak eta beste, sar ez dadin eta makineria honda ez dezan. KONPORTA\* irekitzean, urgeldiko zulo batetatik, ZORROTEAtik\*, irteten den urak gurpil bat, TURTUKIA\*, jotzen du. Hau, urak bultzatzean, bueltaka hasten da eta azpiko harri tinko (AZPI-HARRIA\*) baten gainean dagoen beste harri biribil bat (GAIN-HARRIA\*) mugitzen du ardatz baten bidez. Bi harrien arteko tartea, berriz, torlojo\* baten bidez erregulatzen da eta hau lasago edo estuago jarritz lortzen da lodiera edo moeta desberdinetako irina.

Alea, harri birakariaren goikaldean dagoen kaxoi (PIKATZA) batetatik erortzen da piskana-piskana harri tartetik barrena, eta torlojo (MARATILA\*) batez erregulatutako gorabehera (TRANKA\*) sistema baten bidez neurtzen de zenbat ale erori behar duen aldiko.

Azken ekoizpena\* irin antzera irteten da harri alboetatik eta honetarokoxe prestatutako errotarriean dagoen beste kaxoi (ASKA\*) batetara erortzen da azkenik.



Presazko errota baten eskema



Hemen ez gara hasiko errota batek behar-beharrezko dituen beste hainbat osagarri banan-banan aztertzen, hara nola: pikatzeko tresnak (HARRIKUAK\*), harri jasogailua (PESKANTEA\*), pisuak, balantza, neur-tresnak, palak, mailak, e.a., e.a.

### 7. BESTE ERATAKO ERROTAK

Euskalerrian bazeuden beste era batzutako errotak ere, AIXE-ERROTAK (HAIZE-ERROTAK\*), gutxi batzuk bada ere (dozenaren bat edo gutxi gora behera), MARE-ERROTAK edo ITSAS-ERROTAK\*, itsasgoraz baliatuz ibaltzen zirenak alegia, lurrinezkoak, argindarrezkoak\*, e.a. dira hemen aipatu besterik ez bada ere jarri ditugunak.

### 8. KONTAKIZUN, IPUIN ETA KANTAK

Hainbesteren artean ondokook iruditu zaizkigu egokienak.

#### 1. Feliseneko ipuina (Elgetan jaso)

Felisenean errotariak jadanik lana amaitu zuen eta etxe hartakoak beste leku betetara joan ziren bizi izatera, eta etxea itxita joan ziren gainera.

Orduan ere eskola-mutikoak eskola-mutiko eta zer egin zuten? leihoa apurtu, etxe barrura sartu eta errota martxan jarri; eta martxan jarri eta hanka egin zuten.

Gero, talde hartan ibili zen mutiko bat fraile joan zen eta handik 4 edo 5 urtetara aitari idatzi zion eskutitz bat esanez: aita guk Feliseneko errota martxan ifini genuen eta joan zaitetz mesedez, honez gero makina bat lan egin du eta, geratzerara. Eta hori, aita hori, joan zen errota geratzera eta ordurako dena apurtuta topatu zuen.

Huraxe izan zen errota haren akabera.

Eta mutiko hori hobea izan zen fraile joateko, bere aitaren denboran errotak konpontzeko baino.

2. *Ibutxeko kontakizuna* (Elgetan jaso)

Behin, Ibutxen, Jose Mari eta Ebarista andre gizonen errota ifini zuten martxan eta errotako zorroteko zuloa ez-pal batek tapatu zuen eta Jose Marik esan zion Ebaristari: makila batekin libratuko al duzu hori? Joanda Ebarista eta makilarekin zirika dabilela libratu zaio eta hasi da errota bueltaka eta, Ebarista, heldu erdiko ardatzari eta bueltaka karraxika tiobiboan, eta bien bitartean, dutxa hartu zuen. Halako batean, txorabiatu zen eta uzten dio ardatzari, josten du Jose Mari eta biak putzura. Eskerrak pultzura erori zirena, bestela biak hilko ziren eta.

3. *San Martinen errota* (Luis de Barandiaran Irizarren

Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco” liburutik hartua Zugarramurdin jaso).

San Martinek errota berri bat eraiki zuen, ez zuen martxan jartzerik lortu, ordea.

Deabruak ere bazeukan errota bat eta ezin hobeto zebilen.

Emakume bat San Martinen errotara joan zen eta ea zer gertatzen zitzaion bere errotari martxan ez jartzeko galdegin zion.

Ordurarte asmatu ahal izan ez zuen akatsen bat zeukala bere errotak erantzun zion San Martinek.

Emakumea deabruaren errotara zuzendu zen barehalaxe.

— Lan egiten da, eh? —diosala eginez hasi zitzaion emakumea.

— Ba, bai. Lan egiten dut.

— San Martinek ere bere errotan ”dabla eta dabla” lanean dihardu, bada.

— Haltzazko ardatza ifiniko zion orduan, eh? —galdetu zion deabruak.

— Oraindik ez badio jarri ere, jarriko dio bai.

Emakumea, deabruarekin edukitako elkarrizketaren berri ematera joan zitzaion San Martini korrika. Eta, honelaxe, ikasi zuen San Martinek errota martxan jartzen.

4. “*Errota zahar maitea*” Kanta (Juan Mari Lekuonak idatzia eta Xabier Letek abestua).

Errota zahar maitea  
uraren ertzean,  
uraren ertzean da  
basati beltzean:  
negar egiten dezu  
alea txetzean,  
ni ere triste nabil  
zutaz oroitzean.

Zotin sekua dagi  
errotarriak,  
itzalitako izar ditzirak  
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago  
hor goiko lepuan.  
Errota zaharra, berriz,  
erreka zokuan.  
Berebiziko pena  
badaukat barruan:  
ezin gindezke bizi  
elkarren onduan.

Bizitzaren legea  
nahi det onartu,  
horrela beharra  
koraiaz hartu.  
Berez dijoana  
zertan behartu?



Gaur egun apenas bizpahiru dozena errota baino gehiago martxan ikus daitezken Euskalerrian.

Zilindrodun makina berriek alde batetara utziak dituzte era zaharreko errota haiek. Hau dela bide, gure herriak izan duen lanbide bat desagertuz doa.

Denbora gutxi barru ez da errota zaharra bisitatzera gonbidatzen gintuen ERREKETAKO TAK-TAKa entzuterik izango; ez dugu, ezta ere, oraindik epel-epel zegoen irina baserrira eramatera zihoan errotaria bere astoarekin ikusiko.

Bistakoa da errota zaharrak desagertuz joatea. Baina, oraindik ere lanean ikustera joan zaitezke. Errotariekin hitzegin dezakezue oraindik ere. Eta, berarekin zaudetenean, ez zaitezela ahaz beti gogoan izango duzuela esatea, ez ahaz handitzean, haztean, zuen familiarekin, zuen seme-alabekin bisitatxo bat egitea gustatuko litzaizuekela esatea, eta guzti honegatik, errotaritza jarrai dezatela eta ez dezatela, inolaz ere, beren errota desagertu dadin utz, Euskal Herriaren historia zati garrantzitsu bat bait da.

#### 10. ZUEK ERE EGIN DEZAKEZUEN BISITALDI INTERESGARRI BAT

Aurretik esandako guzti honen ondoren, eta errotaren bat ikustatzera joateko asmorik hartzen badazue, ondoren izendatuko ditugun pausoak jarraitzea oso komenigarri litzateke. Gela bakoitzeko antolaketa beste era batetako izan daiteke, ordea; hemengo honen zeharo desberdina alegia eta, honegatik, ez da behar-beharrezko guzti hau zehatz-mehatz jarraitzea. Guk ez dugu ideia bat eman besterik egin nahi izan.

1. Gelako haur kopurua taldeka banatzea da onena (ez da komeni taldeak bostekoak baino handiagoak izatea ere).

2. Talde bakoitzak bertako arduradun bat aukeratu ondoren (taldeko koordinatzaile bezala), eta irtenaldia egin aurretik, ondorengo guzti hau prestatu beharko luke:

a) Eraman behar diren tresnak: koaderno, arkatx, argazki makina, magnetofoni, e.a.

b) Eguna igarotzeko eramane behar den beste materiala: jazki egokiak, janaria, dirua, e.a.

c) Errotariari egiteko galdekizuna prestatu.

d) Irtenaldia nora izango den, noiz, nola, e.a. ongi zehaztuta eduki, hau da, bidaiaren prestaketa osoa.

3. Irtenaldia bera: errota ezagutu, entrebistak egin, materiala jaso (honetarako komenigarri da zakutxo batzuk eramatea, gero bertako ale, irin eta beste jasotzeko), planuak egin, e.a.

4. Gelan berriro, ondorengo egunetan, jasotako guztia- ren lanketa egingo da: irtenaldia egin aurretik emandakoa berrikusi, ekarritako materiala ordenatu, liburuska edo txostenak burutu, taloa edo artazopak egin, e.a.

5. Guztiaren agerketa edo erakusketa antolatu.

1. Euskalerriko mapa Europa zabalean. GIPUZKOA, BIZKAIA, NAFARROA, LAPURDI, ZUBEROA eta BEHE-NAFARROA herrialdeak.
2. Lehen errota moeta, goibeherazko errota. Aurrekalde- tik atzekalderako mugimenduari eskuz eraginez xehe- tzen du alea.
3. Errota birakaria, IBERIAR eta ERROMATARREK erabilia. Gaur Euskalerriaz ezagutzen dugun lurretan hauek sartuko zuketena agian.
4. Errotarik arruntan eta ikusiena ERREKAKOA da, iru- diko hau bezalakoa (BERGARAKO "BOLINTXU" errota, atzekaldean Angiozar duela).
5. Era honetako errotan oso eraiketa zaharren aztarna ugari daukagu eskuarteetan. Honela, irudiko planu hau Irungo Bidasoa ibaian errota bat eraikitze- ko eskakizuna da. Eskakizun hau, probintzia gobernatzen zutenei lu- zatzen zitzaie, baimena eskatuz.
6. Errota asko beste garai batzutan Euskalerrian hain ugari zeuden ola edo burdinola zaharretara zihoan ur berdi- nez elikatzen zen.
7. Errota baten eskema.
8. Errota guztiak PRESA edo urbiltegi- an hasten dira, he- mendixe hartzen bait dute gero mugitzeko erabiltzen duten ura. LEKUNBERRIko errota honetako bezala- ko presa handiak badaude, eta lehenago ikusi dugun "BOLINTXU"koa bezalako txikiak ere bai, baina de- nek dute zeregin berdina, ura desbideratzea alegia.
9. Presatik desbideratutako ura ALDAPAROA- n biltzen da. Askotan errekan dagoen edo eta errekatik datorren ura gutxi izatean, ez du errota mugi arazteko lain indar edukitzen, baina biltzen edo pilatzen bada, ALDAPA- ROA betean dagoenean, errota martxan ari daiteke ber- tako ura agortu arte. Eta agortzean, berriro betetzera.
10. Presatik aldaparora KANALEtik bideratzen da ura SA- REA gurutzatuz, hementxe gelditzen dira errotaraino helduko balira berau tratatuko luketen hostoak, ada- rrak, eta beste zaborreria guztia.
11. ALDAPAROA garbitu nahi denean, (urtean behin gu- txienez) UR ATEAK irekitzen dira, ura errekaratu on- doren, hutsik gelditzeko.
12. Errotara heltzen den ura hodi batetik (ZORROTEA- tik) irteten da eta TURTUKIA jotzen du. Aintzina egu- rrezkoak ziren eta gero burdinezkoak erabili ziren, ba- tzutan iragazitako burdinezkoak eta txapazkoak beste- tan. Hemen, ASTEASUko "KARIEN ERROTA" errotako TURTUKIA ikusten da. Erdian GAIN-HA- RRIari lotzeko ardatz bat dauka.

13. Martxan dagoenean, ur guztia botatzen du ERROTA-PEAtik\* irteterakoan. Ur hau, behin erabili ondoren, eta batere kutsatu gabe, berriro errekarra bihurtzen da, errotatik pasa aurretik zegoen bezalaxe. KUTSADURARik gabeko industria bat da, beraz.
14. TURTUKIA, NIBEL-MAHAI\* gainean dago jarria. Nibel mahai hau, egur baten bidez goratzen de eta baita honi lotua dagoen GAINHARRIA ere. Goratze edo behekatze honek GAIN-HARRIA eta AZPI-HARRIAren arteko tartea lasago edo estuagotu egiten du eta, honela, irina lodiagoa edo meheagoa eginerazten. Honela, bada, lortu nahi den irinaren lodiera edo kalitatea erregulatzen da.
15. Hemen daukagu GAIN-HARRI bat, non ikus daitezken bi harrien tartean alea xehetzerakoan, hau hobeto apur dadin errotariak egiten dituen arrastoak, Erdiko zuloa IKATZAtik errotaginetara bidean alea bertatik pasa dadin egina dago, berriz.
16. Piskana-piskana errotaginetara eroriz joan dadin, alea jartzen den ontzia da PIKATZA. Diapositiba honetan, pikotxez ubideak berreraiki behar direnean GAIN-HARRIA goratzeko erabiltzen den PESKANTEAren ardatza ikus daiteke gainera.
17. PIKATZA alez edo zakuak irinez betetzeko errota batzutan erabiltzen duten ontzia da KAMELA\*. Egurrezko pieza bakarrekoa da.
18. Errota batzutan beste tresna batzuk ere mugi arazten edo lanean jartzen zituzten txirrika batzuen bidez, "LINPIA"k ziren, hau da, aleak garbitzeko tresnak edo GARBITRESNAK, BEASAINGO "YARZA" errota-ko hauek bezalakoak. Bere barruan dauzkan itxoroski edo maze batzuen bidez alde batetik alea eta bestetik zinkkeriak banatzen ditu.
19. Antzina, irin neurketarako, zurezko ontzi batzuk erabiltzen ziren. Diapositiban agertzen dira, adibidez, ERREGUA\* eta GAITZERUA\*.
20. Geroago; eta beste zenbait lekutan, balantzak erabili ziren, oletan erabiltzen ziren bezalatsukoak ziren. Alde batean pisatu behar zena jartzen zen eta pisuak, berriz, bestean.
21. Antzinako pisuak harrizkoak izaten ziren, erdoiltzen ez zirenez ez bait ziren pisuz lermatzen. Gero, burdinezkoak erabiltzen hasi ziren, eta herriko errementariak eginak izan ohi ziren gainera.
22. Harriak janak zeudenean, peskantea erabiltzen zen berriro lehengo neurrira ekartzeko. Bere ertzetan harriak sartzeko bi hortz zituen burdinezkoa zirkuluerdia bat zen. Gero, bi torlojoren bidez harria goratu egiten zen.
23. Errotaria harri gainean jartzen zen PIKOTX\* edo BUFARDArekin\* eta kolpeka-kolpeka arraiak berregiten edo berritzen zituen, bonbilak botatzen zituen itzalen laguntzaz (lehenago, berriz, olio argiaren laguntzaz).
24. Lanean itxuraz iharduteko lagungarri diren pikotx eta tresna ugari egoten da errota batetan. Hemen ikus ditzaitezue hauetako erabilgarrienak.
25. Errota batzutan, urindarrak beste hainbat erabilpen ere badu, hara nola, eskubila, zerra, geztera, e.a. mugitzeko. Diapositiban, LARRAULgo "ARESKO" errota-ko zintazko zerra bere txirrika eta guzti agertzen da.
26. Beste errota batzutan, berriz, urindarrez baliatuz, dolareak edo pikatzekoak funtzionamenduan jar ditzakete. SAGARRA PIKATZEKO hau bezala.
27. Beste era batzutan errota ere badaude Euskalerrian, marea errota edo itsas errota adibidez, PLENTZI-



Ako honen gisakoak. Aurrekaldean ALDAPAROA ikus daiteke. Hemengo hau, gainera, erreketakoa baino handiagoa da, itsasgora eta itsasbehera\* arteko ur gora beheraz bakarrik probetxa daiteke eta.

28. Haize errotak ere bazeuden, irudian ageri den GETXOko "AXE ERROTA" bezala. Gaur, oraindik, ez da erabat eraberritzea lortu nola funtzionatzen zuten ikusi ahal izateko. Hauek, urindarraren ordeaz haize indarrez lan egiten zuten, eta hau ere, noski, dohakoa eta kutsadurarik gabekoa zen.
29. Errotariak ere, errotak bezalaxe, gizaseme ospetsuak dira, oso ezagunak edozein herritakoak direla ere, gutxi-gehiago honi zor bait zion jendeak bere elikapena. Guztien artetik nabarmendu ziren errotariak ere badira, Pedro Elizegi Maiz bertsolaria adibidez, PELLO ERROTA izengoitiz ezagunagoa Euskalerrri osoan bere bertsoak direla eta. Asteasuko "PELLO ERROTA" errotan jaioa zelako deitzen zitzaion honela.
30. Beste batzuk, beste zerbaitegatik egin ziren ospetsu, Ayako "ERROTAETXE" errotako ARRUTI petriki-loa lekuko. Bere lagunek, eskerronez, plaka bat ezarri zioten bere jaiotetxean.



## ERROTEI BURUZKO HIZTEGITXOA (\*)

- Abel-hazkuntza:** Abere edo azienda hazkuntza eta trukaketa.
- Aldaparoa:** Errotako guzpil hidraulikoraino ura eramaten duen kanalea. Ura pilatzeko eta almagatzeko ere balio du.
- Anega:** Lau gaitzeruren neurria duen zurezko neurgailua. Begiratu gaitzerua.
- Arkeologoa:** Antzinako eraikuntza, aztarna eta beste aztertzen eta ikasten duen pertsona.
- Aska:** Ganbela. Irina erortzen den lekua edo ontzia.
- Azpi-harria:** Beronen kontra alea xehetzeko zoruan jartzen den harria.
- Bufarda:** Harri-mailu handia. Harriak pikatu ondoren berdintzeko erabiltzen den errota-mailua.
- Dohako:** Debaldeko. Ezer ordaindu gabe lortzen dena.
- Eho:** Xehetu. Zerbait hauts bihurtu.
- Ekoizpena:** Produkzioa. Prozesu baten azken emaitza.
- Elikatu:** Janaritu. Edozein biziduni janaria eman. Bizirik irauteko lain janariz osatu bizidun oro.
- Erregua:** Nafar neurria. Anegaren erdia neurtzeko erabiltzen dena.
- Errota birakaria:** Buelbaka edo birakazko mugimenduz ibiltzen den antzinako errota mota.
- Errotapea:** Bolupea, ehierapea. Errota baten azpikaldeko zatia edo lekua. Turtukia egoten den lekua.
- Errotaritza:** Erroten multzoa.
- Gain-harria:** Azpi-harriaren gainean jartzen den harria.
- Gaitzerua:** Lau lakariren neurria duen zurezko neurgailua. Begiratu lakaria.
- Gizakia:** Arrazoidun animalia, nahiz gizonezkoa nahiz emakumezkoa.
- Goibeherazko errota:** Alde batetik bestera mugitzen den xehegailua. Antzinako lehendabizikotako ale xehegailu edo errotak honelakoak ziren.
- Gordin:** Heldugabe, eze, gogor. Suaren eraginez prestatuak ez dauden janariei dietzen zaie. Egosi gabea. Bizirik dagoena.
- Haize-errota:** Haizearen indarrez edo eraginez mugitzen den errota.
- Harpikua:** Harria pikatzeko mailua.
- Harraskaketa:** Porroskaketa. Zerbait beste zerbaiten kontra marruskatzea.
- Itsas-behera:** Itsasoko ura bere mailarik beherenera heltzen den unea.
- Itsas-errota:** Itsasoko uraren indarrez (Itsas-goraz) mugitzen den errota.
- Itsas-gora:** Itsasoko ura bere mailarik gorenera heltzen den unea.
- Kamela:** Pikatza alez edo zakuak irinez betetzeko zurezko ontzia.
- Konporta:** Kanale eta presetan urari eusten egoten den atea.
- Lakaria:** Hiru kilogramo ale kabitzen duen zurezko neurgailua.

**Larrea:** Belardi, zelai, soro. Kanpoan animaliak berenkasa bazkatzeko hazten den edozein jangai.

**Linpia:** Garbitresna. Irina eta zahia bereizteko saredun tresna.

**Lur-langintza:** Lurraren lanketa.

**Lurrinezko errota:** Lurrinaren indarrez edo eraginez edo presioz mugitzen den errota.

**Maratila:** Pikatzatik aldiko zenbat ale erortzea nahi den neurtzeko soka bati lotua egoten den egur-puska.

**Mortairua:** Edalontzi baten antzeko oso aho zabaleko tresna, bertan zerbait zanpatzeko erabiltzen da.

**Neolitoa:** Harri landuaren aro edo garaiari deitzen zaio. Paleolito ondorengo aroa.

**Nibel-mahaia:** Zoru-zoruan dagoen egur lodi eta sendoa. Beroni erantsia dago ardatz edo tantaia eta goiko harria igo edo jaisteko da.

**Odol-errota:** Bizidun batek eragindako errota: gizakiak, mando batek, e.a.

**Paleolitoa:** Antzinako harri-aro edo garaiari deitzen zaio. Historiaurreko hasieratako aroa.

**Peskantea:** Pikatzeko harria igotzeko tresna.

**Pikatu:** Zorroztu. Berrito bere funtzionamendu normalean jarri.

**Pikatza:** Aska, kaxoi. Harri artera alea erori aurretik hau pilatzen den egurrezko ontzia.

**Pikotxa:** Harri-mailu handia. Harriei arrastoa edo arraia egiteko alde banatan puntadun errota-mailua.

**Presa:** Urtegia. Errekan edo ibaian bertan dagoen harresi garaia, ura pilatzeko dagoena.

**Torlojoa:** Torniloa. Pieza zilindriko edo konikoa, honen inguruan hari elikoidal baten antzeko koska bat duena. Torlojoak, elementu desberdinak beren artean lotzeko, biraketa-higidura traslaziohigidura bihurtzeko, indarra egiteko, neurketarako, e.a. erabiltzen dira. Nibel-mahaiaren neurria erregulatzen du.

**Tranka:** Alea dagoen pikatza mugitzeko egurra. Honela alea herri artera erortzen da.

**Turtukia:** Errotaren gurpila. Urindarrez mugitzen den gurpila, goibeherazko edo zeharkako ardazduna, bihurtzeko palatxoekin, kanpokaldetik etortzen zaio ura eta palatxoak kolpatuz abiada bizian biratuz bere ardatzaren bidez bidaltzen du indarra behar den tokira.

**Ur-ate:** Ura iragan edo iragan gabe edukitzeko atea.

**Urgeldia:** Ura pilatzen edo biltzen den tokia. Erreka edo ibaitik desbideratua egon ohi dena.

**Urindar:** Uraren indarra. Uraren eragina.

**Xehetu:** Eho, txikitu, haustu. Zati txikiagoak egin.

**Ziriak:** Kabilak. Gain-harria peskantearekin lotzeko (harria altxatu behar denean) erabiltzen dira.

**Zorrotea:** Turtukia kolpatzeko edo mugitzeko ura irteten den lekua.

**Zura:** Egurra. Zuhaitzen zati gogor eta iraunkorra.

*Antton AGIRRE*

*eta*

*LUBERRI*





Badirudi XX.mende honetan onarturik dagoela edozein pertsonak hezketakako duen eskubidea. Haurrek duten lehentasunezko eskubidetzat jotzen da. Eta haur ijituek duten eskubideari gagozkiolarik inork ez du ukatzen hori, neonazi ideologiakoa izan ezik.

Halaz ere, ijituen eskolatzearen filosofia dezberdinetan oinarritzen diren eritzi desberdinak sortu ohi dira.

Gure herrian ere zenbait formula desberdin erabili dira modu jarraitu batetan.

Eskolarizaziorako lehenik erabilitako formula eta gaur egun gutxi batzu geratzen badira ere, karitatezko edota, benefizientziatzko helburuak dituzten erakundeei loturikoa izan zen.

Bigarren etapan eta gaur egun oraindik hein handi batean bederen, ematen den ijituen eskolatzea, eskola berezietan edota, gela bananduetan ematen dena, alegia, filosofia honekin edozein hiritarrek heziketakako duen eskubidea errespetatzen da baina bereiziz.

Hirugarren bidea aldiz, eskolatzeko normalizatua deritzoguna litzateke eta gertatzen ari dena piskanaka-piskanaka bada ere, hots, beste edozein haur gisa eskolatzeko alegia.

Ez dago zalantzarik, edozein haur ijitu lehenik haurra eta gero ijitua da; beste modura esanda, ez litzateke karitatezko objektu bezala hartu behar, eskubidedun gizaki gisa baizik; eta hori kontutan izanik haur ijitu batek normalizaturiko eskolatzeko prozesu batetan sartzeko eskubide osoa du. Jakina, horretarako eskola-komunitateak bere baitan, elementu aberasgarritzat jo behar du aniztasuna kultur mailakoa denean eta sozial mailakoa denean aldiz, positiboki ordaintzekoa. Beste modura esanda, haur ijitua eskolan eta kultur ikuspuntituk harturik beste edozein kultur hesparrutik datorren haurra bezala hartu behar da. Arretaz tratatuz eta ezagutuz, bere baloreen eskalarekin gatazkan sartu gabetanik.

Gaur egun eskolatzeko zabalagoa ematen den arren ez da guztiz normalizatua oraindik. Alde batetik, ijituherriari egotzen zaizkion kultur diferentziak giza-marginazioarekin erlazioaturiko aspektuak izaten dira eta eskolatzeko prozesuari onik egiten ez dion giza-zerbitzuez lagundurik gehienetan. Bestalde, kultur ikuspegitik harturik, eskolak bere prozesu hezigarrietan, ikasle bakoitzaren jatorriko kultur ezaugarriak ezagutuz, gainera, gizabanakoaren sozializazioa hezike-

taren helburu gisa ulertu behar du. Eta egun ematen ez den eskolaren aldaketa suposatzen du guzti honek, gaurko eskolak ez bait du aniztasunean hezitzen eta kasu askotan, onartu ere ez bait du onartzen. Erreforma handiak, oinarritzko transformazioak eta mentalitate aldaketa ugari behar dira.

Esperientziak argi adierazten digunez, eskolarizazioa ez da prozesu isolatu bat. Familiaren bizimodu baldintzak, etxebizitza egokia eta ekonomiazko egoera estabilizatuz doan heinean eskolarizazioa ere hobetuz doa, eta antzeko zerbait gertatzen da eskolan ere, zerbitzu sozialez, jantokiz, diru-laguntzaz, e.a.-rez, hots, psikologo, medikuz, irakasle kopurua gutxitzen denean eta ikastetxearen antolaketa ikaslearen beharrei erantzutera prestatzen denean eta heziketa gizartearen aldagarritzat jotzen duen pertsona orok nahi lukeen beste hainbeste gauzez hornitzen denean eskola, gauza bera gertatu ohi da.

Baina azpiegituraren aldaketok ezinbestekoak izango dira Heziketa bideratzeko moduan ez bada mentalitate-aldaketarik ematen. Beharrezko baita ikasle bakoitzaren heltze-erritmoa, nortasun ezaugarriak, bere kul-



tur sustraiak, e.a., e.a., errespetatzen jakitea.

Elkarbizitza eta elkarbizitzara bultzatuko duen egiazko heziketa indartu behar da betez ere, komunitate hezigarrian.

Ijitu-herriaren bizitzaren kalitatean hobekuntza batez ere, ezinbestekoak dira eskolarizatze normalizatuak arrakasta lor dezan; alferrikakoak izango bait dira ahalegin guztiak ez baditugu elkarbizitza baketsu eta errespetagarrietara zuzentzen.

Gure gizarte honetan prejuizio asko daude ijituei buruz. Irakasleek eta gainontzeko lankideek bazter batetara utzi behar dituzte prejuizio guztiak benetazko irakaskuntza eskaini nahi bada. Alde batetik, haur ijituak ez du nabaritu behar bere burua bere aurka aurrez gerturiko sentimenduez inguratua, horiek mugatzen bait dute bere konportamendua edo jarrera, eta bestalde, eskolakideek ez dute inolako diferentzia edo bereizketarik egingo, ez bada bere kultur ezaugarriei dago kienean.

Normalki, haur ijituen ikaskideek ez dute inolako susmorik edukitzen; eta baldin badituzte beraien gurasoengandik jasotakoak izaten dira. Eskolak agian, ez du gizartea orokorri transformatzeko ahalmenik izango nahiz eta Guraso Eskolen bitartez zerbait egin, baina ezin du inolaz ere etorkizuneko gizartearen protagonisten hezketa galerazi.

Bakezko, justiziazko eta elkarren arteko begirunezko etorkizuna nahi badugu gaurdanik hasi beharko dugu antolatzen, gaurko gizarte konplexu honetako lagunen artean alegia. Guzti honék berez dakar ijituei buruz ditugun eritziak ulertzen ahalegindu behar dugula, asko eta asko zentzurik gabekoak direla, hots, eraman duten bizimoduari dagozkionak alegia.

Ijituak herri bezala (herri direnez) ikusiko bagenitu eta berauen historia kontutan hartuko bagenu, agian, hau izango litzateke nahitaezko elementua eskolakideok osatzen dugun komunitatearen mentalitatea aldatzen hasiko litzatekeena.

Estatu espainolean bakarrik bostehun mila (500.000) laguneko kolektiboa dela eta guttienik bost mende ba-

daramatela lurralde hauetan kontutan hartuko bagenu, orduan besterik ez genituzke aintzakotzat hartuko eta asturiarrekin edota, murtzianoekin parekatuko. Eta konsziente izango bagina beraien lurraldeak uztera behartuak izan ziren herria dela, orduan agian, palestindarrei adinako inportantzia emango genieke.

Baldin eta, galeretan hil zirenen kopuru zehatza izango bagenu edota, nazien garaian erahil zituzten bostehun mila lagunez ohartuko bagina, ez genuke inolako zalantzarik herri mehatxatua eta torturatua dela aldarrikatzeke. Deskulturizatze prozedura luze baten ondorioz beraien hizkuntza galduz joan ohi direla kontutan hartuko bagenu, orduan, gizartearen kultur patrimoniotzat duten hizkuntz minorizaturiko herriekin parekatuko genituzke. Baina aski izango litzateke agian, pertsonak bezala tratatuko balira. Eta hau, guztion lana da.

Eskolako konbibentzi-arazoez mintzatzen garenean badirudi ijituak bakarrik aldatu behar duela bere jokaera eta hori noski, ez da konbibentzia eta elkarrekiko errespetoa, asimilaziotzat hartu behar den integrazioa baizik. Elkar ezagutza eta desberdinizateko eskubideak, hots, konbibentziaren hobekuntzarako ematen diren balore hezigarri guztiak eskolatik paraleloki joan behar dute, desoreka sozialaren konpentsazioari, heziketa eskubideari eta, ijitu-herri honek azken gizaldiran jasan duen deskulturizatze prozesua gainditzeari paraleloki, alegia.

Giza-solidaritatearen ikuspuntutik, inor ez daiteke harrotz senti behar honekiko, eta ere guttiago eskola, berau gizartearen gainditze desioen tresna kanalizatzaile bezala hartzen badugu, behintzat.

#### ADARRA (Bizkaia)

Itzulpena: IRAKASLE ELKARTEA

*OHARRA.* Haur ijituen eskolatzeaz dagoen dokumentazio materialea jaso nahi balu norbaitek, honoko helbide honetara eska lezake:

ADARRA  
Licenciado Poza 31-7  
48011-BILBO

# Zer da pedagogia?

São Paulo

Urte askotan isilik egon ohi gara, alde batetik, gure hizkuntzan aurkezteko eragozpenak zirela medio eta, bestetik, gaitasun ezagatik...!, orain berriz, ISILIK aldizkariak ematen digun aukera onuragarritzat jota, eta ez beste edozein baino gaitasun gehiago dudalako, baizik eta hitz egiteko aukera eta gogoia ditudalako, nere zenbait burutapen agertzera noakizue.

São Paulo-n (Brasil) bizi naiz, eta Paulo Freireren inguruan dastatu ditut bere hitz sortzaile eta lagunkorrek, bere izaeraren hurbiltasun atsegina, irakaslea, laguna..., ahantzi ezina dut, horregatik egoera berazi hau bizi dudalarik nik mamitu eta nereganatu ditudan zenbait erizpideen berri emateko prest nago, besterik ez.

Beldurra eta lotsa alde batera utziaz, nere nortasuna ukitu duen zenbait eritzi agertu nahi dut. Oraingo honetan PEDAGOGIA<sup>ri</sup> dagozkion burutapen eta eritzi prestaturiko laburpen-txoak, alegia.

## ZER DA PEDAGOGIA?

Etsipenera bideratzen gaituen ekintza bizia dela, esango nuke, Hezkuntza, onuragarri bihurtzen duen ezaugarri beharrezkoa, alegia. Bestela, zertan ari gara?.

Pedagogiaren barnean eztabaidagarria bihurtzen den arazoa, hau da; zein etsipenetara jo nahi dugun. Hortarako hezitzaile bakoitzaren etsipen moeta eta neurriak aztertu beharrean gaude, hezkuntza erakunde mailan, bide bat edo bestea jorratuz, aukeratutako etsipenera bideratzeko Hezkuntza.

Azken erabaki horretara iritxi baino lehen, oinarrizko zenbait etsipenez jantzita egon beharra dago. Hau ahantzi ezina dela iruditzen zait. Horregatik, nere burua astindu duten zenbait eritzi onartu beharrezkoak direnez, zuekin eztabaidatzea atsegin dut.

Hezkuntza munduan beti, erakunde honek daraman izenagatik, bere lur nahasi horretan galduta, eta berari dagozkion ezaugarriak aldarrikatzen eta burukatzen ibilia naiz, joera pertsonalari gehiegi begiratu gabe, erakunde bera indarra eta etsipena sortu eta eragin dituen izango balitz bezala. Askotan, eta egunerokotasunean bizitzen dugun eskizofrenia tankerara.

Euskal Eskola publikoa bai, euskal hezkuntza bai, hori oso garbi aldarrikatzen dugu, baina... eta... gu...?.

Hau aztertzeke ekintzetara jo beharrean gaude, gure ekintzetara, egunerokotasunean dabilzagun jokaera moetak aztertzeke, hitz batez, ekintza horien erizpide teorikoak eztabaidatzeke.

Ekintza eta teoriaren arteko lotura eta harreman dialektikoak guztientzat ezagunak dira, ekintza hezitzaileak berak eraman behar gaituela hezkuntza-bilakabidearen ildoan jakinik, ekintza eta teoriaren eztabaidatze geldiezin batetara, alegia.

Ekintzak dira hezitzaile handienak. Jakintzaren iturri agortezinak. Ekintza bakoitza ez da berari dagozkion teoriaren aurkezpena, teoriari ematen zaion bizi edukia baizik, teoria bera ekintzaren bidez egiaztatzen delarik, dialektikotasun batu eta bilakabidetera biziak. Era honetara, gaurko ekintza teoriaren bidez argituta, biharko ekintza aberatsa eta hobea izan daiteke, bilakabide emankor geldiezin gertatzen delarik.

Teoriak, izanaren aurkezpen gardena izan behar du. Ezin dugu jakintasunaren objetibotasuna ukatu, baina jakintsuaren objetibotasuna ere ez, horra ba hemen ere dialektikotasunaren aberastasuna, jakinik gainera, jakintza bera, jakintsuaren eta bere jakinduriaren mugak gainditzeko gai dela.

Ezer ez dago zeharo bukatuta, dena egiten ari da. Guk bizi dugun une eta lurraldea, ez dira guri eman dizkiguten

une eta lurraldeak, beti ematen ari den izana baizik, horregatik ez da uki ezina, zaugarria, ekintzez eta teoriak jorra daitekeen egoera zahar-berriztagarria baizik.

Objetibotasuna eta objetibotasunaren tira-birak eguneroko ekintza eta teoriaren mamia ditugu eta zientziak berak daraman ezaugarria.

Hezkuntza eremua bada, ekintzaz eta teoriak jantzitako jakinduriaren hedapen leku berezia da, ez da abstraktoa, oso zehatza baizik, gure kulturaren hedapen aberatsa bizi den leku emankorra, alegia. Hezitzaileen ekintza eta teoriak ez dira nolana hikoak ere; gure aldekoak izan behar dute, ez dago bada euskal kulturaren alde ez dagoenik, (edo ez luke egon behar behinik behin) gure hezkuntza arloan, ez dago ekintza eta teoria alderdi gabekorik (neutrala). Politika osasuntsuz ukiturik edo kutsatuta egonen dira gure jokabideak, horregatik, beharrezkoa da bakoitzaren jokabide garbia; gero ikastetxe eta erakunde bakoitzak bere eginkizunei dagozkien helburuak lor ditzan, gure hezkuntzaren xedea lortzearen, azken batan.

Hau garbi dagoenean eta bideak urratzen goazen arabera, oso garrantzizko bi gauza topatuko ditugu beti: botere eta zapaltzaileen erizpide teorikoak. Dena, bi gauza hauetaz txertaturik aurkitzen dugu, horregatik, bide berri eta onuragarriak sortu beharrean gaude, zapaltzaileen botere eta erizpideak ezabatzearen, baina hau ez da gauzetik goizera egiten den gauza miragarria, trebetasun politikoaren bidez baizik; lehenengo eta behin, gure izaeran txertatuta dauden botere eta erizpide zapaltzaileak suntsiaraziz, zeren... hainbat eta hainbat arroskeria gureganatu bait ditugu gurea arbuatu duten hezitzaileenagandik!...

Hemen datza pedagogiaren lana beraz, gure euskal hezkuntzaren etsipenera bideratzen goazen heinean, ira-

kasle, ikasle hezkuntza herrikoiaren zutabeak eraikitzea. Ez dira bi une desberdin, adib.; lehendabizi hezkuntza zapaltzailea ezabatu eta gero geurea eraiki, ez, zapaltzaileak suntsiarazten goazen neurrian, euskal hezkuntzaren oinarriak eraikitzen joan behar dugu. Kontuz, bada, ea zertan dihardugun aztertu beharra dago.

Askatasuna eta burujabetasunaren bila dabilen herri batean, ikastetxe guztiek espermentalak izan behar dute; irakasle, guraso, ikasleak esperimantalitasun horren ondorioez arduratuz, gainegitura baten barnean arriskatzen garelako ohartuz, eta honek duen boterea gu bizi garen azpiegiturak jasaten duela jakinaz; zertarako eta zeren aurka ari garen hezitzen, garbi ikusiaz.

Herri borroka batu batean eraikitzen doan hezkuntza izan behar du gureak. Gizaki bakoitzaren aldaketan bakarrik, oinarritzen den hezkuntza ez da onuragarria; gain eta azpiegituren eztabaidatze lana batera aztertuz lor dezakegu herriaren berreraiketa, borroka politikoak duen ezaugarri bereziena lortuz, hots, garailetasuna. Politikaren esanahia hezkuntza eremuan onartuz eta hezkuntzak etsipenerako

duen indar pedagogikoaz politikan baliatuz. Honek, politikotasun honek, gure ekintzen neurriak eta mugak eza gutzera eramango gaitu, hauen ondorioak onartuz, erabaki onuragarriak aukeratzera eta bakoitzaren baieztatze politikoa aurkeztera. Hau lortzen ez dugun bitartean ez dugu indar zihur, iraunkor eta aberatsa lortuko hezkuntza arloan, are gutxiago, hezkuntza herrikoi eta askatzailea; ez delako erizpide teoriko polit eta ederretan oinarritzen gure amets hori, ekintza arriskuetsuetan, izanaz ernaldutako ekintzetan, baizik.

*Zertan datza orduan, ekintza pedagogikoa?*


Izanaren aurkezpen argia eta garbia, zentzu aztertzaile batekin, egiten ahalegintzen den ezaugarrian, irakasle eta ikasle, etsipen kritiko eta baikor bategarri eramanaz.

Hortarako, hezitzaileak edota, irakasleak benetazko gaitasun zientifikoa behar du. Gaitasun hau ez dute ikasbideek ematen; pedagogia ikasbideetara mugatzea hezkuntza zapaltzaileen on-

dorioa da; ikasbideak behar ditugu baina, hauek bakarrik ez dira nahiko. Gure gizarte kapitalistan ikasbide eta teknikei garrantzi gehiegizkoa ematen zaie, nere ustez; izanaren aztertze kritiko baikorraren egitea alde batera utziz askotan. Izanak dituen estalgarriak eza gutzuz, izanaren azken zentzu hori aurkitu beharrean gaude hezkuntza onuragarri eta herrikoi lortu nahi badugu, irakasle eta ikasle, biak, ikerketa bilakabidean biziz, gure inguruan dauden izanaren atalak osatu eta onbiderratuz euskal hezkuntzaren helburuak lortzearren.

Irakasle taldeek, beraiei dagozkien gaitasun zientifikoa lortzen saiatu behar dute ardura osoz, jakinduriaren gosez, ikasketen hedapenaren eginkizunetan geratu gabe, jakintzak eta bizi-tzak daraman berezko arrisku sortzailea landuz. Irakasleen antolakuntzarako bide berriak sortu behar ditugu.

Bide berriak urratu behar ditugu, burujabetasuna lantzen duten bideak, jauntxokeriak ezabatuz. Honetan egin behar ditugu ahalegin guztiak. Burujabetasuna eta jauntxokeriarik eza, biak, jorratu beharrean gaude, ze, ez bait dugu ezer egiten burujabetasuna bakarrik



lortuz jauntxokeriaren menpean bizitzen jarraitzen badugu. Hemen dago, gaur egun, pedagogiari dagokion lan berezia eta beharrezkoa: gure izaera eta erakunde guztien izanaren barruan aurkitzen den jauntxokeria suntsiaraztean, alegia. Aitatiarkeriaren (paternalismo autoritario) inguruan sortu den hezkuntza erakundearen menpean hezi eta bizi izan gara eta, askatasunerako bideak jorratu nahi duen hezkuntz herrikoiak, lehenik eta behin, guregan eta gure inguruan bizi den jauntxokeriaren desagerketa lortu behar du. Egunerokolana dugu hau geure harramanetan eta ikasgela barruan, benetazko Burujabetasuna lortzen goazen bezala jauntxokeriaren arrastoak gure izaera eta ekin-tzetatik ezabatzea, pedadogia osasuntsu eta iraunkorraren ildoan biziz. Benetazko nagusigoa honetan datza. Gure heldutasunaren baieztatzea ekintza eta joera sendoaz, oso beharrezkoak ikusten ditut, bizi garen gizartean ematen den hutsegitea eta jauntxokeriaren menpean berriro ez erortzearren. Be-

hin baino gehiagotan, euskal hezkuntzari dagokion nagusigoa, gogor eta sendo baieztatu beharko ditugu, bestela gure herrian ematen den hutsegitea zenbait eta zenbait arlo eta eremuetan, hezkuntza zapaltzaile eta jauntxokeriaren eskuetan berriro ere eroriko dira. Askatasunaren bilakabidean gure nagusigoaren lorpena burujabetasunaren eta askatasunaren ezaugarria denez.

Laburpen honetan, hezkuntza eta bereziki pedagogiari dagokion lanari aritu naizelarik, gizakia eta izanaren arteko lotura eztabaidagarriak ukitu nahi izan ditut, izatearekin batez ere zerikusia duela pedagogiak, adieraziz. Ahan-tzi gabe noski, non kokatzen den gure euskal hezkuntza, hots, borroka eta eztabaida politikoan bizi den herri baten gunean; gu eta gure eskubideak non oinarritzen diren ezagutzera eramaten gaituen eta etsipenera bideratzen gaituen hezkuntza herrikoian.

*Arantxa UGARTETXEA*

## IDAZTEN KOLABORATU NAHI DUTENAK


**IZENA** .....

**HELBIDEA** .....

**TEL.** ..... **HERRIA** .....

**GAIA** .....

**NOIZKO** .....



## Haur literaturaren txokoa

"Zer dute hurrek irakurtzeko?"

### ADARBAKARRAREN SEKRETUA

Saila: TINTIN.

Egilea: Hergé

ELKAR-ek argitaratzen duen TINTIN-en hamabigarren abentura hau, 40. hamarkadaren azkenera plazaratu zen lehenengo aldiz.

Honako hontan, Haddock kapitainarentzat erositako opari batek, ADARBAKARRA edo unikornioaren sekretu bidean jarriko ditu TINTIN eta bere lagunak.

Besteak beste, gerora adiskide zintzo izango duten, baina oraingoan gaizkileen zerbitzari den, Nestor maiordomoa ezagutuko dute.

Eta abenturak abentura, aipatzekoa da honek duen amaiera behin behinekoa besterik ez dela, jarraipena RACKHAM GORRIA-renean bait du. (ELKAR-ek dagoeneko plazaratua).

### TXINTXINBELA saila (2.hirukotea)

Modu erakargarri batez, irakurtzen lehen pausoak ematen hasiak diren haurrentzat daude zuzendurik liburuska hauek.

Asteko egunak, ibilgailuak, errelojua, abereak... hartu dira gaitzat bigarren hirukote honi begira. (Guztiak badute nolabaiteko kontakizun-haria).

Hizkuntza bizi eta errazean idatzirik daude, sinpletasunaren aberastasunean oinarriturik, askotan errimaz baliatuz. Marrazkien bidez, testuan zer jartzen duen jakiteko irrika sortu nahi da haurraren eta, jakina, material oso egokia dateke gurasoek hurrei irakurtzen laguntzeko ere.

### TINTIN KONGON (Komikia)

Egilea: Hergé

Sail honetako hamairugarren ale honek garai bateko KONGO beltzera garamatza, TINTIN eta bere lagunen abentura berriak ezagutzeko (edota gogorazteko) aukera emanez.

TINTIN KONGON komiki hau 1946.ean argitaratu zen Frantzia lehenengo aldiz, eta, euskara tarteko, hogeitabederatzi hizkuntzetara dago itzulirik dagoeneko.

### ZIPRISTIN 8 Irakurgaiak (O.H.O.8.maila)

Saila: Testuliburuak

"ZIPRISTIN" sail osoa bezala, "ZIPRISTIN 8" liburua irakurgaiak osaturik dago eta laister argitaratuko den HIZKUNTZA saileko zortzigarren alearen osagarri gisa kalera-  
tu da.

Kasu honetan Eusko Jaurlaritzako "Goilo Zikloko Euskararen Programakuntza-D eredia" liburuak O.H.O.8.mailarako eskatzen dituen literatur jeneroak hartu ditu oinarritzat liburua osatzeko.

Bilduma honetan ipuinak, nobela zatiak, entseiuak, erromantzeak, narrazioak, kronika eta erreportaiak, eguneroak, antzerkiak tartekaturik aurki daitezke.

Hogeitamabi irakurgai ezberdin hauen arten gutxi batzuk gipuzkeraz edo bizkaieraz emanak daude, jatorrizko ortografia errespetatuz. Izan ere helburuetako bat bait da BBBra jo behar duten gazteak gure klasiko zaharrak jatorrizko euskararen irakurtzeko gai izan daitezen lahen pausoak ematen hastea.

# HAUR LITERATURAREN TXOKOA

## "PINOTXOREN ABENTURAK"

Egilea: Carlo Collodi

Saila: ITZUL (57.a)

Kapituluka publikatu ziren 1878.ean gerora hain ezaguna egin den pertsonaia honen abentura eta desbenturak. 1883.ean berriz, "Le aventure di Pinocchio" tituloarekin liburu oso batean argitaratu ziren.

Geppetto harotzari, bere tailerrean lanean ari dela, intzirik hasten zaio eskutan duen egur pusketan min ematen diola esanez. Honelaxe jaiotzen da Pinotxo. Bere semetzat hartzen du harotzak egurrezko panpina eta eginhalak eta bi egiten ditu Pinotxori bizimoduan aurrera irteten laguntzeko. Baina egurrezko panpina honek izugarrizko atsekabeak ematen dizkio "aitari". Dena dela, azkenean aitarekin topo egiten du eta baita maitasunez zaindu ere. Eta sari ezin hobea jasoko du: egurrezko panpina izateari utzi eta benetako mutiko bat bihurtu.

Azken batean PINOTXO ipuin moralista bat da, etxetik ihes egin eta bere aitari sufrierazten dion panpina desleial baten istorioa. Gaiztakeria eta ontasunaren arteko borrokan abentura erakargarriak kontatzen dizkigun ipuina. Baina moralista bada ere obra hau, ez da moralkeria errezean erortzen, fantasiak, irudimenak eta argumentoari darion interesak libratzen bait du pekatu horretatik.

## SUZKO ZAPATAK ETA HAIZEZKO SANDALIAK

Egilea: Ursula Wölfel

Saila: ITZUL (8-15 urtekoentzat)

Tim zazpi urte dituen mutiko txiki eta gizen bat da. Eskolako lagunak barre egiten diotela eta, bere itxuraz etsiturik bizi da. Bestelakoa izan nahi luke. Bere urtebetetze egunean bi motxila, zapata berriak eta sandalia pare bat ikusten ditu sukaldeko mahai gainean, eta segituan egiten dute plana aita-seeek. Timek zapatak jantzi, aitak sandaliak, eta motxilak bizkarrean harturik hamaika bat abentura bizieraziko dien txangoa egitera abiatzen dira. Timek bere munduaren mugak zabaltzen ditu eta horretan asko lagunduko diote, berrikuntza guztiak aitzaki, aitak kontatuko dizkion ipuinek.

Ipuin honek ez du ez garai ez leku jakinik, baina errez egokitzen da gure garai eta egunetara. Era errez batez, adibide asko emanaz, nolabaiteko mezu filosofikoa du berekin, eta azken batean mutikoak onartu egiten du bere izaera...

(OHARRA: ITZUL saileko beste zenbait libururen antzera, honek ere bolatxo txuri-beltz bat ageri du liburu-bizkarraldean. Alegia, sail honen irakurle gazteenei begira egindako moldapena dela adierazi nahi du ikur horrek (7-8koentzat).



# Memori

# gutuna

SAN PABLOn

Kaixo Memo:

Batzutan egunak luze dira eta hilabeteak labur. Denboraren abiadura izugarria da. Ikastaroa bukatu da eta denbora gutxi barne Bogotan izango nauzu berriro. Zer esan behar ote dizut, hain hurbiletik jarraitu nauzun denboraldi luze honetaz... Hala ere, oraindik gauza asko geratzen dira tintotzian, gertaeraz, elkarbizitza sakonaz, bizitza bera bezain latz diren gertakari harrigarritz dardarka egin duten zelulaz eta, hortik ateratako ondorioa hots, guztiaren laburpena, ez da aidean zintzilik geratzen den zerbait, sakondutako erabakian baizik, behin eta berriro esan, egon behar den lekuan egonaz, herrian, alegia. Teoria guztiak bai politikoak, pedagogikoak eta psikologikoak ere, argi mota desberdina botatzen dute herriarengandik, herriarentzat eta herriarengan sakontzen eta oinarritzen badira.

Neu herrian sortua naiz eta betidanik bere zainen artean mogitu izan naiz, baina nire hiri-auzoko giroak ez ninduen inoiz dardar egin arazi, errealitate honek hunkitu nauen adina.

Nigandik oihu poetikoak sortarazi ditu egoera honek. Hemen bidaltzen dizkizut, maitasunetik, nire salaketa konszienteena irakurtzen jakingo duzulakoaren zihurtasunez.

Maite zaituen,

TERE



### Irakaskuntzaren egoera

Franco hil geroztik zerbait aldatu arren, lehen bezala jarraitzen gara Irakaskuntza arloan.

1975 inguruan sorturiko alternatibak bazterturik daude; garai hartan erabiltzen ziren kritikarako alternatibak, gaur egun oztopo eta eragozpen besterik ez dira.

Horregatik, alternatiba guztien baino hurrunago joan behar dugu; hesi guztiak apurtuz; irakasle, guraso eta ikasleen irudimenezko kapazitatea exijitu behar dugu; behar edo premia berriak planteiatuz, bide berriak urratuz...

Eta onartzen badugu ez daukagula alternatiba berririk era globalean eta sistimatikoan proposatu ahal izateko, eta duda-mudatan bagabiltza inolako satisfakziorik gabe; zerbait berriren bila hasi beharko dugu.

Adibidez; Pedagogiazko metodologia egoki baten *behar* nabaria somatzen dugu. Gaurko arazorik nagusienetako bat eta gauzarik xinpleena eta zailena era berean, hauxe dugu: klase bat ematen jakitea; edukiak esplikatzeko; ikasleei lanak proposatzea, e.a., e.a.; baina, guzti hau molde tradizionalak hautsiz eta, I.C.E.ren teknokrazia pedagogikoak proposatzen dituen molde berriak baztertuz egiten jakitea, alegia.

Bestalde, kezkatzen gaituen beste arazoa zera dugu; Orain arte, guztiok eskolak sortzearen beharrari ekin izan diogu haur guztiak eskolatu ahal izateko, 18 urte arte gutxienik. Baina orain arte doan bezala, ez ote gara erratzen ari?

Eskandalagarria da benetan, gu zaintzen eta gure ordeztasunaren duten funtzionariak direla medio Estatuaren omnipresenzia. Bizitza osorako eskolatu nahi gaituzte, gainera eskolarizazio horrek kontrola, menpekotasuna, obedientzia adierazten duelarik.

Badakigu gizakiak garela eta heziketa bat behar dugula, heziketa etengabea, baina, HEZIKETA zentzurik zabalenean eta ez oraingoa.

Pedagogia libreago eta hobe baten alde borrokatzen ari diren guztiak, onartu eta bultzatu behar ditugu.

Guztiok dakigu zer esan nahi den Pedagogia libreago bat esatean: sistema haustea, etengabeko eskolatzeko masiboa baztertzeko, zeren, ez al litzateke potentzial hobeak gizartearen kapazitate pedagogikoa, hots, gizarte osoa eskola handi batetan bilakatzea? Zergatik ez ditugu aprobeztatzen esate baterako, indartzen ari diren mugimendu sozialak (ekologistak, antinuklearrak, presoak, feministak eta beste edozein marginatu...) Herriak dituen beharrei eta darmatzan borrokei erantzuneko dien IRAKASKUNTZA planteiatzeko?



Beldugarria baita, orain arteko eskolarizazio horrek inplikatzeko duena, beste hitzetan esateko; sekula ez gara pertsona helduak eta gure ekintzen arduradun izango eta, irakaskuntzaren beharra izango dugula beti, kontrol-mekanismo berri batzu ezarri.

Eta hori gutxi bada, beste arazo nagusi bat erantsi nahi nioke: Edukiarena, alegia. *Zer irakatsi eta ikasi nahi dugu irakasterakoan?*

Badakigu, zernolako gizartean desarroitzen den arabera izaten dela hezketa eta helburu zehatz batzuren zerbitzura egon behar duela. Gu gizarte kapitalista eta autoritario batetan gaudenez, hemen ematen den irakaskuntza klase burges eta menperatzailearen ideologia iraun araztera zuzendurik dago, ondorioz, gutxiengo baten pribilegiozko egoera mantentzera eta kapitalaren hedaturantz nahi eta nahiezko den lan indarra kualifikatua birregitera, beharturik dago. Egungo egitura sozialen iraupena eta hauek mantentzen duten produkzio moduaren aldaketaren beharra baztertzen duen borroka, borroka antzua eta porrot egitea behartua dago.

Beraz, ezinbestekoa zaigu, egungo «KULTURA» zuzentzen duten baloreak aztertzea, efikaziaren baloreak, konpetentziarenak, solidaritate-ezarenak, egoismoarenak, indartsuen garaipenarenak, oportunitatearen berdintasunarenak, hitz batez, kultura kapitalistaren baloreak.

Guzti honi aurre egiteko balore alternatiboak bideratu beharko ditugu, horretarako borroka eginez.

Natura eta beste pertsonekin harremanetan sartzeko eta ulertzeko forma berri bat irakasten eta hedatzen ahalegindu behar dugu.

Jakin ere badakigu, burges-kulturaz beterik gaudela gauza onerako eta ez zaigula hain erraza izango hesi hori apurtzea, baina, kultur herrikoien baten erakuntzari eragin behar dio irakaskuntzak eta horretara jo behar dugu.

Ez dugu aiantzi behar aipatu ditugun deformazio horiek, harreman sozialen forma zehatz eta konkretu batetik datozela; eta ez bagara beste modu batetan bizitzen eta pentsatzen hasten; ez baditugu egin nahi gizartea eta norbera etengabeki aldatzeko gai izango diren pertsona berriak, alferrik ihardungo gara irakaskuntzan.

Eta Irakasle Eskolek benetan, zerikusi handia dutela uste dut eginkizun honetan.

A. P.



**IKASTAROAK**

\* «EUSKARAREN DIDAKTIKA B EREDUAN».  
Irakasleak: Uri RUIZ eta taldekideak.  
Hasiara eguna: Irailak 28.  
Lekua: Instituto Politeknikoan. DONOSTIA.

\* «SOZIOLINGUISTIKA-SARRERA IKASTALDIA».  
Irakaslea: TXILLARDEGI.  
Hasiara eguna: Urriak 5.  
Lekua: Itziarko Ama Ikastola. DEBA.

\* «DIDACTICA DEL LENGUAJE».  
Irakaslea: Jose M. VELAZQUEZ.  
Hasiara eguna: Urriak 31.  
Lekua: Ikasbide Ikastola. DONOSTIA.

\* «EUSKARA SAKONTZEN».  
Irakaslea: Jexux LASA.  
Hasiara eguna: Azaroak 4.  
Lekua: Ikasbide Ikastola. DONOSTIA.

\* «TXOTXONGILOAK EUSKARA LANTZEKO»  
Irakaslea: Enkarni GENUA.  
Hasiara eguna: Azaroak 4.  
Lekua: Ikasbide Ikastola. DONOSTIA.

\* AUDIOBISUALAK HIZKUNTZAREN  
ERABILPENARAKO.  
Irakasleak: Marian BILBATUA Eskoriatzako Irak.  
Esk.  
Hasiara eguna: Azaroa 11.  
Lekua: Ikasbide Ikast. DONOSTIA.

\* E. HERRIKO GEOGRAFIA-HISTORIAren  
Didaktika-Metodo. G./Z.  
Irakaslea: Mikel UBILLOS.  
Hasiara eguna: Urria 31 - larunbatetan.  
Lekua: Ikasbide Ikast. DONOSTIA.

\* ERLAXAKETA ikastaroa  
Irakaslea: Inaxi LAZKANO.  
Hasiara eguna: Azaroa 7 - larunbatetan.  
Lekua: Zehaztu gabe.

\* SOZIOLINGUISTIKA-SARRERA IKASTALDIA.  
Irakaslea: TXILLARDEGI.  
Hasiara eguna: Azaroa 9 - Astelehen/Ostegunetan.  
Lekua: «Andreone» Kultur Etxea. LEZO.

\* HELDUENTZAT PSIKOMOTRIZITATE Ikastaroa.  
Irakaslea: Alberto BARRENETXEA.  
Hasiara: Urrian - Larunbat osoa / Igande goiza.  
Deitu: 468102.

**HITZALDIAK**  
**«HAUR LITERATURAZ»****1987**

*Irailak 24.* «LETRAK BERTSOTAN» liburuaren  
aurkezpena. Antton CAZABON.  
«Arkubide» Euskal Txokoan. Konstitu-  
zio Plaza. Donostia.

*Urriak 2.* «LITERATURA INFANTIL VASCA EN  
EL CONTEXTO EUROPEO».  
Seve CALLEJA. Ikasbide Ikastola. DO-  
NOSTIA.

*Urriak 15.* «EUSKAL HAUR LITERATURAREN  
NONDIK NORAKOA». Xabier Etxaniz.  
Ikasbide Ikastola. Donostia.

*Urriak 29.* «HAUR LITERATURA IRAKASKUN-  
TZAN». Mikel Elustondo.  
Ikasbide Ikastola. Donostia.

ANTOLATZAILE:

**IRAKASLE ELKARTEA**

Amezketarren plaza, 12-8.º F

Telefonoa (943) 45 51 00

20010 - DONOSTIA

# Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia  
egun eta gauez, edozein ordutan.



**E**z al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskeintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.

Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD  
Txartela eska ezazu.



**CAJA LABORAL POPULAR**

**LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa

